

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Eibarko Udala

Ayuntamiento de Eibar

2016





AURKIBIDEA

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA.....	8
II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA	8
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA	10
III.2 LANGILERIA	11
III.3 KONTRATAZIOA	12
III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK	13
III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK	13
IV. FINANTZAREN ANALISIA	14
V. URTEKO KONTUAK.....	17
V.1 UDALA	17
V.2 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIETATE PUBLIKOA.....	20
ERANSKINAK	23
A.1 Fiskalizazio-gai den erakundearen izaera eta ezargarrria zaion legeria	23
A.2 Aurrekontua eta aldaketak.....	24
A.3 Zergak, Tasak eta bestelako sarrerak	25
A.4 Transferentzia eta diru-laguntzek eragindako sarrerak	26
A.5 Langileria gastuak	27
A.6 Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioa.....	29
A.7 Transferentzia eta diru-laguntza kapitalezkoak eta arruntak	31
A.8 Aurrekontuz kanpoko eragiketak eta finantza pasiboak.....	32
A.9 Aurrekontuko zordunak	33
A.10 Aktibo ez korrontea eta aurreko ekitaldietako emaitza	34
A.11 Udal erakunde autonomoak eta sozietate publikoa	35
A.12 Kontratazioaren analisia	37
A.13 Legezko auziak	38
A.14 Ondare eta aurrekontuko finantza-adierazleak	38
ALEGAZIOAK	39



ABREVIATURAS.....	51
I. INTRODUCCIÓN	53
II. OPINIÓN	54
II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD	54
II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES.....	54
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	56
III.1 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD	56
III.2 PERSONAL.....	57
III.3 CONTRATACIÓN	58
III.4 TRANSFERENCIAS Y SUBVENCIONES.....	59
III.5 MOROSIDAD Y OTROS ASPECTOS	59
IV. ANÁLISIS FINANCIERO	60
V. CUENTAS ANUALES.....	63
V.1 AYUNTAMIENTO	63
V.2 ORGANISMOS AUTÓNOMOS Y SOCIEDAD MUNICIPAL	66
ANEXOS.....	69
A.1 Naturaleza del ente fiscalizado y legislación aplicable.....	69
A.2 Presupuesto y sus modificaciones.....	70
A.3 Impuestos, tasas y otros ingresos.....	71
A.4 Ingresos por transferencias y subvenciones.....	72
A.5 Gastos de personal	73
A.6 Compra de bienes corrientes y servicios e inversiones reales	75
A.7 Transferencias y subvenciones corrientes concedidas	77
A.8 Operaciones extrapresupuestarias y pasivos financieros	78
A.9 Deudores presupuestarios	79
A.10 Activo no corriente y resultado de ejercicios anteriores	80
A.11 Organismos Autónomos y Sociedad municipal.....	81
A.12 Análisis de contratación	83
A.13 Contingencias legales	84
A.14 Indicadores financieros patrimoniales y presupuestarios.....	84
ALEGACIONES	85



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

LABURDURAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
EHJAN	Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Gorena.
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala.
GFA	Gipuzkoako Foru Aldundia.
GLL	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
LZ	Lanpostuen Zerrenda.
TAOAL	7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituen.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak onetsitako Lan Programak agindutakoari jarraikiz, Eibarko Udalaren 2016ko Kontu Orokorraren fiskalizazio lana mamitu du.

HKEEk gauzatutako Eibarko Udalaren Kontu Orokorraren aurreko fiskalizazio lana 2006ko ekitaldiaren gainekoa izan zen.

Fiskalizazio lan honek honako alderdi hauek besarkatzen ditu:

- Legezketasuna: Honako aurrekontuaren atal hauetan ezargarria den arautegia bete izana: aurrekontua, zuzenbide publikoko sarrerak, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, zerbitzuak eta hornidurak eta diru-laguntzen emakida. Azterketa lan hau fiskalizazioaren ekitaldiari dagokio, beharrezko irizten diren beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztatzeak egitea kaltetu gabe, fiskalizazio-gai den ekitaldian eragina dutelako.
- Kontabilitatea: Kontu Orokorra ezargarri zaizkion kontularitzako printzipioekin bat datorrela egiaztatzea. Kontu Orokorrak Udalaren, bere erakunde autonomoen eta Udal sozietatearen aurrekontuko balantzeak, ekonomia-ondarearen emaitzen kontuak, oroitidazkiak eta likidazioak besarkatzen ditu.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlan berriazkorik besarkatu; ezta, kudeaketa prozedurei buruzkorik ere. Nolanahi den ere, fiskalizazioan zehar sortu diren alderdi partzialak txosten honen III. idazpuruan aztertu ditugu.
- Udalaren egoera ekonomikoaren finantza analisia.

Eibarko Udalak 27.380 biztanle zituen 2016ko urtarrilaren 1eko biztanleen udal erroldaren arabera, eta Udalean udal administrazioaz gain ondoko erakunde autonomoak eta Sozietate publikoa barne hartzen ditu:

- Kirolaren Udal Patronatua (Kirolaren Patronatua), Ipurua, Unbe, Orbea eta Astelenako udal kiroldegiak kudeatzen dituena.
- San Andres Fundazio Publikoa (San Andres Egoitza), adinekoentzako udal egoitza kudeatzen duena.
- Juan Bautista Gisasola Musika Eskola Publikoaren Patronatua (Musika Eskola).
- Inmobiliaria Municipal Eibarresa, SA (% 100), IMESA, zenbait higiezinaren sustapen kudeatu dituena; 2015ean sozietatea desegiteko erabakia hartu zen (ikus A.11 eranskina).

Berebat, honako erakunde hauetako kide ere bada: Debabarrena Eskualdeko Mankomunitatea (kale garbiketa eta zabor bilketa) eta Gipuzkoako Uren Partzuergoa (uraren ziklo osoaren kudeaketa).

Azkenik, DEBEGESA, SA Debabarreneneko Garapen Ekonomikorako Elkartean (% 12,5) eta Debemen Landa Garapen Elkartean esku hartzen du.



II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Epaitegi honen ustetan, Eibarko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek zuzentasunez bete dute 2016ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

- Hona hemen 2016ko abenduaren 31n Eibarko Udalaren Diruzaintza Geldikinean, data horretan itxitako Egoera Balantzean eta Ondare Garbian eragina duten doiketak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan			
	AURREKONT.	ONDAREKOA		ONDARE
	DIRUZAINZA GELDIKINA	AKTIBOA	PASIBOA	GARBIA
UDALA				
A.3 2016ko zerga sarrerak, 2017an erregistratutakoak	233	356	-	356
A.4 Diru-laguntza bidezko diru-sarreretan finantzaketa desbideratzeak	(335)	-	(335)	(335)
A.5 Elkarkidetzari egindako aparteko ekarpenen konpromisoa		-	(370)	(370)
A.7 Mankomunitateari ekarpina	742	742	-	742
A.7 Diru-lagun. konpromet. saldoak, jada zorpetutako gastuen kontz.	(150)	-	(150)	(150)
A.10 IMESAko partaidetzaren balio galerarako zuzkidura	-	(358)	-	(358)
UDALA GUZTIRA	490	740	(855)	(115)

- 2016an aktibora eskualdatutako azpiegituren amortizazioak kalkulatzeko, ekitaldi hasieran metatua eta urteko zuzkidura, udalak ez zituen hainbat elementu aintzat hartu, 15,3 milioi euroren kostua izan zutenak; beharrezkoa da kalkulu xehatua izatea urteko zuzkidura eta metatutako amortizatua kalkulatu ahal izateko (ikus A.10 eranskina). Egoitzaren Ibilgetuan kontularitzan 230.551 euroren balio garbia duten elementuak jaso dira, erosketa kostuaren euskarririk izan gabe.
- Erantsitako Kontuek ez dute zuzkidurarik jasotzen ebatzi gabe dauden bi errekurtsio judizialeetatik erator litezkeen ondorioetarako; ezta, 2017ko apirilean HAPOko aldaketa bat baliogabe utzi zuen epai batek eragindakoetarako ere. (ikus A.13. eranskina).

Epaitegi honen iritzira, aurreko paragrafoetan adierazitako salbuespenak alde batera, Eibarko Udalaren Kontu Orokorra osatzen duten erakundeek kontuek alderdi esanguratsu guztietan 2016ko ekitaldiaren jardura ekonomikoa eta 2016ko abenduaren 31ko ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Guk emandako Iritziari eragiten ez dion arren, arreta jarri nahi dugu IMESAren Oroitidazkiaren 13. oharrean, zeinak adierazten baitu erreklamazio judizialak aurkeztu dituztela IMESAk sustatutako etxebizitzaren erosleek, guztira 775.081 euroren zenbatekoa egiten dutenak.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2016ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra hasiera batean Udaltzak 2016ko martxoaren 18an onetsi zuen; ordea, arategiak behin betiko urtea hasi aurretik onestea aurreikusten du.
- 2016ko aurrekontuari jada 2015eko aurrekontuari txertatutako gastu kredituak txertatu zitzaizkion, 50.597 euroren zenbatekoan, eta horiek ez zituzten behin eta berriz txertatuak izateko baldintzak betetzen. Berebat, 2015eko urteko konprometitu gabeko gastu arrunteko kredituak txertatu direla ikusi da, 105.000 euroren zenbatekoa egin dutenak.
- Oroitidazkiak ez du Gipuzkoako Uren Kontsortzioarekin 2014an izenpetutako lankidetzaren berri ematen, zeinaren indarrez uren hornidura eta saneamendu zerbitzuari lotutako azpiegiturak 10 urtez lagatzen dizkion.
- Balantzeko epe laburreko zorren idazpuruan 5 urtetik gorako antzintasuna duten bermeen saldoak azaleratu dira, 306.504euroren zenbatekoan; komeniko litzateke horien eskagarritasuna aztertzea.
- Guztira 400.000 euroan emandako bi diru-laguntza 2016ko abenduan eman ziren eta 2017 eta 2018rako aurreikusi ziren egikaritzea eta ordainketa epeak; honenbestez, egokiagoa zatekeen urte-anitzeko gastutzat hartzea. Nazioarteko garapeneko proiektuetarako laguntza-deialdiak geroko urteetan garatzea ere aurreikusten du.

Erakunde autonomoak

- 3 erakunde autonomoetan, kudeatzen dituzten tasen erroldak ez dituzte euren lehendakariak onartzen. Gainera, Kirolaren Patronatuko eta San Andres Egoitzako tasak borondatezko aldiak ordaintzeko egutegiak finkatu behar ziratekeen.
- Kirolaren Patronatuak ez du aurrekontuan aldi baterako lan-kontratuko langileentzako diru-izendapenik bereizten eta horiek eragindako kostua langile finkoei dagozkien kontuetan erregistratzen du, 2016ko abenduan aldi baterako 9 langile zituen arren. Musika Eskolak aldi baterako langile modura erregistratu eta aurrekontuan jaso behar luke 3 langile mugagabe ez finkoen kostua.
- Ez da erabiltzen erakunde autonomoetan lehendakariaren nahitaezko ebazpen liburua, eta ez zaizkio Zuzendaritza Batzordeari jakinarazten lehendakariaren ebazpenak, nahiz San Andres Egoitzaren kasuan ia erabaki guztiak Batzordeak hileroko egiten dituen bileretan adosten diren.



- 3 erakundeetan Estatutuek diruzain egitekoak erakundeko langileei egozten dizkiete, gaitutako funtzionarioei egotzi beharrean. Musika Eskolaren kasuan, egoera hau idazkari lanekin ere gertatzen da.
- Kirolaren Patronatuan kasu guztietan gastua egikaritzeko ADO faseak metatu egiten dira eta honenbestez, ez dira modu egokian kontrolatzen gauzatutako esleipenak.

III.2 LANGILERIA

- Udalak eta 3 erakunde autonomoek 2016an langileei euren ordainsarien % 0,6ko produktibitate-osagarri lineala ordaindu diete, 39.849 eta 14.352 euroren zenbatekodunak. Ordainsari kontzeptu hau funtzionario bakoitzak bere lanpostuari atxikitako egitekoak betetzean erakutsitako aparteko etekin, interes edo ekimena saritzeko erabili beharko litzateke.
- 2016ko abenduaren 31n Udalean erretiro partziala zuten sei langilek saritutako baimena gozatzen zuten, erretiro sariari uko egiteagatik konpentsazio gisa (6-21 hileko bitartean). Baimen hauek ez ditu aurreikusten erretiro partzialak arautzen dituen araudiak. Gainera, akordio arautzaileak erretiro saria aurreikusten du adinagatik borondatezko erretiroentzat, erretiro partzialaz bestekoa dena.
- 2016an ordaindutako osagarriak berrikustean ikusi dugu 2 langileri 14.724 euro ordaindu zitzaizkien, derrigorrezko zerbitzu eginkizunengatik kalte-ordain kontzeptuan; araudiak, ordea, lekualdaketak soilik gertatzen direnean aurreikusten du horien ordainketa.
- 2016an Udalak aldi baterako langileen 69 kontratazio egin zituen eta ikusi dugu 4 kasutan, iraupen luzeko kontratuak guztiak (urtekoak eta lan-utzialdikoak), enplegu bulegora jo zela, berariazko deialdia egin beharrean.
- 2016an amaitutako funtzionarioentzako 3 deialdiak 2006, 2008 eta 2011ko Lan-eskaintzetatik datoz. Arautegiak 3 urteko epea ematen du hautaketa-prozesuak egikaritzeko; ez da, baina, epe hori bete.

Erakunde autonomoak

- 2016an aldi baterako langileen kontratazioak gauzatu dira bai San Andres Egoitzan bai Kirolaren Patronatuan ere, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatuko dituzten prozedurak baliatu gabe; kontratazio horiek batez beste 53 eguneko iraupena izan dute; alabaina, badira ekitaldi honezaz lehenagoko kontratuak, baita 2016an izapidetutakoak ere, indarrean daudenak txosten hau idatzi dugun datan.
- Musika Eskolako Lanpostuen zerrendak jasotzen du 20 lanpostuk dedikazio partziala dutela, baina ez du dedikazioaren ehunekoa zehazten.
- Egoitzaren aurrekontuko langileei buruzko eranskinak kopuru bakar batean jasotzen zituen –ordainsarien % 35 egiten zuena- jaiegun eta gaueko orduengatik hobariak eta aldi baterako langileak kontratatuzko kredituak.

III.3 KONTRATAZIOA

Fiskalizazio-gai izan den urtean indarrean zeuden 9 kontratu nagusiak aztertu ondoren, honako alderdi hauek azalera zaizkigu (ikus A.12):

- Guztira 1,1 milioi euroan esleitutako 2 kontratutan (12 eta 13 zk. espedienteak) Egoitzak pleguetan agintzen zuen aurreko kontratistaren langileria subrogatu behar zuela esleipendun berriak; ordea, betekizun hau enpresa eta langileen arteko sektoreko hitzarmenetatik soilik erator daiteke (A1 akatsa).
- Guztira 913.593 euroan esleitutako bi kontraturen txosten teknikoek (11 eta 13 zk. espedienteak) ez dituzte eskaintza bakoitzean emandako puntuak justifikatzen. Ezaugarri hau garrantzitsua zen lehenengo kontratuan, gutxieneko puntuazioa eskuratzea eskatzen baitzen eta lehiazailuetako bik ez zuten lortu (B1 akatsa).
- Hasierako lanbide-prestakuntzako ikastaroen kontratuan zerbitzua ekainean esleitu zen 225.100 euroren zenbatekoan, EAEk uztailean ordezkari gaiztatu aurretik eta Udaltzako irailan onartu aurretik. Gainera, 5 urteko aldirako eskuordetutako eskumen izaera aintzat hartuta, komenigarria litzateke atxikitako gastu eta sarreraren kredituei urte anitzeko izaera ematea (C akatsa).
- 5 milioi euroan esleitu zen Errebal erabilera anitzetarako eraikina eraikitze obra kontratua izapidetzean, 2 hilabeteko esleipen epe gehienekoa gainditu zen, proposamenak irekitzen direnetik aurrera kontatuta (SPKLTBren 161.2 art.) (C akatsa).
- Ikuztegi zerbitzua 551.397 euroan esleitu zen eta lehiaketara plika bakarra aurkeztu zen. Esleipendunari beharrezkoa den makineria ekartzeko eta jarduerak Egoitzaren aretoetan garatzeko eskatzen zaio; ordea, betekizun horiek lehia mugatu dezakete (C akatsa).

Beste erosketa batzuk

Erosketa txiki modura izapidetutako erosketak berrikustean ikusi dugu Kirol Patronatuak kontratista bati zaintza elektrikoko hainbat lan zuzenean esleitu dizkiola 62.778 euroren zenbatekoan, banaka izapidetu zirenak (43 faktura); egokiagoa litzateke, baina, osotasunean kudeatzea.



III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

- Gainera, Mankomunitateari egiten zaizkion ekarpenak aurrekontuaren zenbatespenekin kalkulatzen dira, egikaritzaren egiazko datuekin dagokion likidazioa eskatu gabe.
- DEBEGESA sozietate partaidetuari 2016ko ekitaldian jarduerak finantzatu ahal izateko emandako 209.377 euroren diru-laguntza izenduna nahitaezkoa den hitzarmen bitartez arautu behar zatekeen edo obligazioak emakida ebazpenean xehetasunez jaso.
- Elkarre batekin 4 diru-laguntza zuzen arautzeko izenpetutako beste hainbeste hitzarmenetan, 129.449 euroren zenbatekoan, ez dira diru-laguntzaren xede diren jarduera zehatzak jasotzen, ez horien kostuaren balioespenik ere eta honenbestez ez dira garatuko diren jarduerak berariaz adierazten eta ez da diru-laguntzaren zenbatekoa justifikatzen.

III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

- Ordainketa epeen gaineko hiruhileko txostenek erakusten dute Udalak 2016an egindako ordainketen % 0,89k finkatutako epea gainditu zuela (30 egun onartu zenetik). Ehuneko hau % 72,51 eta % 17,33 bitartekoa da, hurrenez hurren, San Andres Egoitzan eta Musika Eskolan. Kirolaren Patronatua ordainketen batez besteko epea kalkulatzera mugatzen da, 2016an 22,5 egunekoa izan zena.
- Udalak 2016ko ekainean Txonta eremuan kokatutako 18 enpresetako bat birkokatze hitzarmena izenpetu zuen; ez zituen, baina, alde aurretik hirigintzako araudian aurreikusitako antolamendu eta egikaritze planak eta baliabideak garatu eta izapidetu. Egokiagoa zatekeen sektorearen gaineko plangintza osatzea eraginpeko enprekin erabakiak hartzen hasterako eta erabakien egikaritze hirigintza proiektuaren egiazko egikaritzara meneratzea. (Ikus A.13 eranskina).



IV. FINANTZAREN ANALISIA

Udalak azken ekitaldietan likidatutako magnitude nagusien bilakaera ondoko taulan dago zehaztua.

FINANTZAREN ANALISIA	Euroak milakotan			Euroak biztanleko		
	Urtea			Urtea		
	2014(*)	2015(*)	2016	2014(*)	2015(*)	2016
Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak (1, 2 eta 3 kap.).....	10.425	10.732	10.516	380	391	384
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	17.650	18.390	19.072	643	671	696
Ondare sarrerak (5. kap.).....	155	133	77	6	5	3
A. Diru-sarrera arruntak	28.230	29.255	29.665	1.029	1.067	1.083
Langile gastuak (1. kap.).....	10.702	10.836	10.829	390	395	395
Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak (2. kap.).....	6.473	6.731	7.115	236	246	260
Transferentzia eta diru-laguntza arruntak (4. kap.).....	5.205	4.504	5.064	190	164	185
B. Funtzionamendu gastuak	22.380	22.071	23.008	816	805	840
Aurrezki gordina (A-B)	5.850	7.184	6.657	213	262	243
- Finantza gastuak (3. kap.).....	108	64	38	4	2	1
Emaitza arrunta	5.742	7.120	6.619	209	260	242
- Maileguen amortizazioa (9. kap.).....	813	2.239	700	30	82	26
Aurrezki garbia	4.929	4.881	5.919	179	178	216
Inbertsio errealen besterentzea (6. kap.).....	-	-	-	-	-	-
Jasotako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	3.688	1.782	3.967	134	65	145
- Inbertsio errealak (6. kap.).....	5.253	3.129	5.485	191	114	200
- Emandako kapital diru-laguntzak (7. kap.).....	2.625	964	348	96	35	13
Kapitaleko eragiketen emaitza.....	(4.190)	(2.311)	(1.866)	(153)	(84)	(68)
Eragiketa ez finantzar. emaitza (1etik 7rako kap.).....	1.552	4.809	4.753	56	176	174
Diruzaintza geldikin likidoa	7.881	12.083	16.340	287	441	597
Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina	6.391	8.469	15.248	233	309	557
Zorpetzea 12.31n	5.512	4.196	3.496	201	153	128

(*) HKEEk fiskalizatu gabeko datuak.

Sarrera arruntak: Gora egin dute 2015 eta 2016an eta hirurtekoaren lehenengo urtearekiko % 5,1eko hobekuntza izan du.

- **Zerga zuzenak, zeharkakoak eta tasak:** % 1 egin dute gora, nahiz zerga nagusien tarifak ez diren aldatu. Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zergak behera egin du eraikuntza jarduera txikiagoa izan delako eta 2015ean 3. kapituluak gorakada izan duelako Uren Partzuergoaren aparteko diru-sarrera baten ondorioz, uraren kudeaketa osoa laga izanaren ondorioz, alegia.
- **Transferentziak eta diru-laguntzak:** % 8,1 egin dute gora 2014-2016 aldirian, osagai nagusiak gora egin duelako, Udal Finantzaketakarako Foru funtsak % 6an eta EAEren diru-laguntza esanguratsuek ere gora egin dutelako, hala nola, Gizarte Larrialdietarako Laguntzek eta Enplegu Planak.

Funtzionamendu gastuak: % 2,8 egin dute gora 2014 eta 2016 bitartean, ondoko xehapenarekin:

- **Langile gastuak** % 1 igo ziren aztertutako aldiaren soldata igoeraren eta 2012ko abenduako aparteko soldataren gainerako % 50a ordaindu izanaren ondorioz; aldi baterako langileen bolumenak egonkor eutsi dio.
- Aztergai izan dugun aldiaren **Ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioak** % 10 egin du gora, izan ere, mantentze lanetako eta enpresek egindako lanen kontu-sailek % 20 egin dute gora 2014ko ekitaldiarekiko.
- **Transferentzia eta diru-laguntzek** % 2,7 egin dute behera, osagai nagusia % 24 murriztu izanaren ondorioz, hau da, Mankomunitateari egiten zaizkion ekarpenak, gutxitu egin baitira zabor-zerbitzuak eragindako defizitak. Bestetara, igoerak izan dira enpresa eta irabazi asmorik gabeko erakundeei ematen zaizkien diru-laguntzetan eta gizarte-larrialdietako prestazioetan.

Aurrezki gordina: Erakundearen autofinantzaketa maila neurtzen duen aldaki honek 2014an sarrera arrunten % 20,7 egiten zuen eta hobera egin du, honenbestez Udalak 2016an sarrera arrunten % 22,4 du finantza zamari aurre egiteko eta inbertitzeko.

Aurrezki garbia eta zorpetzea: Finantza zamak 2015ean une jakinetan milioi euroa gainditu du, alde zurretik mailegu bat amortizatu eta beste bat birfinantzatzea egokitu delako; honela, bada, 2016an finantza zama 738.115 eurorena izan da. Zorpetzeak behera egin du eta urte horretako sarrera arrunten % 11,8koa izan zen.

Kapital eragiketen emaitza: Lehenengo urteko inbertsio ahaleginak (sarrera arrunten % 28) behera egin du 2015 eta 2016an. Finantza zaketan garrantzia izan dute EAEren diru-laguntzek, aztertutako aldiaren inbertsioen % 47 egin dutelarik.

Gastu Orokorretarako Diruzaintza geldikina Magnitude honek hirurtekoaren hasieran sarreraren % 26 egiten zuen eta gora egin du 2015 eta 2016ko aurrekontuko superabiten ondorioz, harik eta 2016ko abenduan sarrera arrunten % 55 egin arte; horrek 15,2 milioi eurora igotzen du, nahiz gogoan izan behar den 2016ko abenduaren 31n konprometituriko kredituetan 7 milioi euro daudela.

Ondorioa: Udalak eskuratu duen aurrezki garbi positiboak bide emango luke urtean inbertsio kopuru handiagoari aurre egiteko. Horrek guztiak Udala kaudimen ekonomikoko egoeran jartzen du, ohiko funtzionamendurako behar hainbateko baliabideak dituela eta zorpetu beharrik izan gabe, etorkizuneko inbertsioei berezko baliabideekin aurre egiteko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Aurrekontuaren egonkortasuna: Udalaren Kontu Hartzaitzak txostena jaulki zuen adieraziaz aurrekontuaren egonkortasunaren arautegia bete dela likidazio kontsolidatuari dagokionez, eragiketa ez finantzarioetan superabita izan duelako, gastuaren araua bete duelako eta udalaren zorra kontsolidatutako sarrera arrunten % 10 izan delako. Aurrekontuan 2016rako aurreikusitako desorekak eragin zuen Udalbatzak doiketarako Ekonomia-finantza Plan bat onartzea, gauzatu ez zena.



V. URTEKO KONTUAK

V.1 UDALA

2016-KO EKITALDIAREN AURREKONTU LIKIDAZIOA										Euroak milakotan		
SARRERAK	ERANSK.	HASIER	AURREKONTUA			ESKUB.		KOBR.		%		
			ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	KOBR.	GABEA	EXEK.				
1.- Zerga zuzenak	A.3	8.268	-	8.268	8.322	8.093	229	101				
2.- Zeharkako zergak	A.3	310	-	310	307	228	79	99				
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	A.3	1.279	-	1.279	1.887	1.584	303	148				
4.- Transferentzia arruntak	A.4	18.779	154	18.933	19.072	18.400	672	101				
5.- Ondare sarrerak	-	134	5	139	77	76	1	55				
6.- Inbertsio errealeen besterentzea	-	6	-	6	-	-	-	-				
7.- Kapitalezko transferentziak	A.4	2.585		2.585	3.967	537	3.430	153				
8.- Finantza aktiboak	-	38	5.448	5.486	397	392	5	104				
9.-Finantza pasiboak	A.8	1.899	-	1.899	-	-	-	-				
SARRERAK GUZTIRA		33.298	5.607	38.905	34.029	29.310	4.719	101				

(*) Egikaritzaren % kalkulatzeko, geldikinen txertaketa deduzitu da, 5,1 milioi euroren zenbatekoan.

Euroak milakotan										
GASTUAK	ERANSK.	HASIER	AURREKONTUA			OBLIG.		ORDAIN.		%
			ALDAK.	B.BETIK.	AITORT.	ORDAINK.	GABE	EXEK.		
1.- Langileria-gastuak	A.5	10.973	280	11.253	10.829	10.819	10	96		
2.- Ondasun arruntan erosk. eta zerb.	A.6	8.680	1.013	9.693	7.115	6.211	904	73		
3.- Finantza gastuak	-	121	-	121	38	38	-	31		
4.- Transferentzia arruntak	A.7	5.309	1.278	6.587	5.064	5.038	26	77		
5.- Kreditu globala	-	60	(35)	25	-	-	-	-		
6.- Inber. errealak	A.6	6.957	2.766	9.723	5.485	4.080	1.405	56		
7.- Kapitalezko transferentziak	A.7	350	305	655	348	348	-	53		
8.- Finantza aktiboak	-	35	-	35	31	31	-	89		
9.-Finantza pasiboak	A.8	813	-	813	700	700	-	86		
GASTUAK GUZTIRA		33.298	5.607	38.905	29.610	27.265	2.345	76		
SARRERAK - GASTUAK					4.419					

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA					Euroak milakotan			
	HASIER.	KOBR./	AZKEN	ZORRA	BALIOG.	ORDAIN.	ZORRA	
Zordunak	3.690	325	2.425	940				
Hartzekodunak	1.391	-	1.391	-				
AURREKONTU ITXIEN EMAITZA					(325)			



AURREKONTUAREN EMAITZA	Euroak milakotan
Kitatutako eskubideak.....	34.029
Aitortutako obligazioak.....	29.610
INDARREKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	4.419
AURREKO EKITALDIETAN KITATUTAKO AURREKONTUKO ERAGIKETEN EMAITZA	(325)
BESTE BATZUK	(2)
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	4.092
Finantziazio desbideratzeak.....	(53)
Diruzaintza geldikinarekin finantzatutako gastuak.....	3.128
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	7.167

DIRUZAINZA GELDIKINA	Euroak milakotan
Diruzaintza geldikina 2016.1.1ean.....	12.084
Ekitaldiaren aurrekontu emaitza.....	4.092
Huts egindakoen hornidurarako dotaz. aldaketak.....	164
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2016.12.31-N	16.340
Diruzaintza.....	2.645
Aurrekontuko zordunak.....	5.659
Aurrekontuz kanpoko zordunak.....	13.154 (*)
Aurrekontuko hartzekodunak.....	(2.345)
Aurrekontuari ezartzeko dauden kobrantza eta ordainketak.....	(28)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak.....	(1.673)
Kaudimen-gabez. zuzkidura.....	(1.072)
DIRUZAINZA GELDIKIN LIKIDOA 2016.12.31-N	16.340
Finantzaketa atxikia duten gastuetarako Diruzaintza Geldikina.....	1.092
GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA GELDIKINA	15.248
(*) Eperako ezarpenak barne hartzen ditu, 13,1 milioi eurorenak.	
ZORPETZEA 16.12.31n	3.496

KONPROMISO KREDITUEN EGOERA	Euroak milakotan		
	Aurrekontua	Baimendua	Hitzartutakoa
2. Azterlanak eta proiektuak.....	967	-	-
4. Alokairurako diru-laguntzak.....	70	70	44
6. Errebal erabilera aniztetarako eraikina.....	2.911	2.911	2.781
GUZTIRA	3.948	2.981	2.825



BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

AKTIBOA	ERANSKINA	2016	PASIBOA	ERANSKINA	2016
AKTIBO EZ ARRUNTA		80.446	ONDARE GARBIA		93.329
Ibilgetu ukiezina.....	A.10	56	Ondarea		15.447
Ibilgetu materiala	A.10	61.092	Aurreko ekitaldietako ondorioak	A.10	70.581
Lurraren ondare publikoa.....	A.10	6.204	Ekitaldiaren emaitza.....		3.352
Taldeko erak. finantza inb.....		13.039	Jasot. diru-lag., emaitz. egozteko daud.	A.4	3.949
Finantza inbertsioak e/luz.....		55			
			PASIBO EZ ARRUNTA		2.867
			Epe luzeko zorrak	A.8	2.795
			Beste zor batzuk		72
AKTIBO ARRUNTA		20.425	PASIBO ARRUNTA		4.675
Zord. eta kobratz. bste knt. btzu e/lab		4.586	Kreditu entitateekiko zorrak.....	A.8	701
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		13.194	Zorrak epe laburrera		1.614
Eskudirua eta aktibo likido baliokideak		2.645	Hartzek. eta e/lab. ordain. bste knt btz.		2.360
AKTIBOA GUZTIRA		100.871	PASIBOA GUZTIRA		100.871

2016-KO EKONOMIA-ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA

Euroak milakotan

Zergak	8.649
Tasak	775
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak	19.087
Salmentak eta zerbitzuen emakida	241
Kudeak. arrunteko beste sarr. batz.	496
KUDEAK. ARRUNTEKO SARRERAK GUZTIRA	29.248
Langileria-gastuak	(10.988)
Soldatak, lansariak eta antzekoak	(8.537)
Gizarte zamak	(2.451)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	(5.412)
Hornidurak	(9)
Kudeaketa arrunteko bst gastu batzuk	(7.962)
Ibilgetuaren amortizazioa	(1.545)
KUDEAK. ARRUNTEKO GASTUAK GUZTIRA	(25.916)
ERAGIKETA ARRUNTEN EMAITZA	(3.332)
Ibilg.ez finantz.+aktibo salgaien balio narriadura eta emaitzak.....(A.10)	(216)
Beste kontusail ez arrunt batzuk.....	127
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	3.243
ERAGIKETA FINANTZARIOEN EMAITZAK	109
EKITALDIAREN EMAITZA	3.352



V.2 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

2016-KO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Euroak milakotan

SARRERAK	ERANSKINA	KIROLAREN P.		EGOITZA		MUSIKA	
		Has.aurr.	Diru-sarrerak	Has.aurr.	Diru-sarrerak	Has.aurr.	Diru-sarrerak
3.- Tasak eta bestelako sarrerak	-	1.506	1.502	1.339	1.294	132	134
4.- Transferentzia arruntak	A.11	941	977	2.034	2.355	351	293
5.- Ondare sarrerak	-	53-	54	66	61	-	-
8.- Finantza aktiboak	-	10	-	-	-	11	-
GUZTIRA		2.510	2.533	3.439	3.710	494	427

Euroak milakotan

GASTUAK	ERANSKINA	KIROLAREN P.		EGOITZA		MUSIKA	
		Has.aurr.	Gastuak	Has.aurr.	Gastuak	Has.aurr.	Gastuak
1.- Langileria-gastuak	A.11	662	694	2.602	2.677	423	377
2.- Ondasun arrunten erosk. eta zerb.	A.11	1.801	1.765	811	808	50	38
3.- Finantza gastuak	-	2	2	-	-	-	-
4.- Transferentzia arruntak	-	35	35	-	-	-	-
6.- Inber. errealak	-	-	-	25	16	10	10
8.- Finantza aktiboak	-	10	-	-	-	11	-
GUZTIRA		2.510	2.496	3.438	3.501	494	425
SARRERAK - GASTUAK			37		209		2

AURREKONTU ITXIEN BARIAZIOA

Euroak milakotan

	KIROLAREN P.	EGOITZA	MUSIKA
Hasierako kobratzekoa	14	268	84
Kobrantzak	14	265	84
Amaieran kobratzekoa	-	3	-
Hasierako ordaintzekoa	162	94	10
Ordainketak	162	94	10
Amaierako ordaintzekoa	-	-	-

AURREKONTUAREN EMAITZA

Euroak milakotan

	KIROLAREN P.	EGOITZA	MUSIKA
UNEKO AURREK. AURREKONTU EMAITZA	37	209	2
AURREKO EKITALDIEN AURREKONTU EMAITZA	-	-	-
EKITALDIAREN AURREKONTU EMAITZA	37	209	2
Diruzaintza geldikinarekin finantzaturako gastuak	40	-	-
DOITUTAKO AURREKONTUAREN EMAITZA	77	209	2



DIRUZAINZTA GELDIKINA	Euroak milakotan		
	KIROLAREN P.	EGOITZA	MUSIKA
Diruzaintza	405	704	27
Aurrekontuko zordunak	19	284	81
Aurrekontuko hartzekodunak	(157)	(125)	(9)
Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak	(65)	(152)	(26)
Aurrekontuari ezartzeko dauden kobrantza eta ordainketak	(8)	-	-
Kaudimen-gabez. zuzkidura	-	-	-
DIRUZAINZTA GELDIKIN LIKIDOA 2016.12.31-N	194	711	73
Finantzaketa atxikia duten gastuak	-	-	-
Gastu Orokorret. Diruzaintza Geldikina	194	711	73

BALANTZEA 2016-KO ABENDUAREN 31-N	Euroak milakotan			
	IMESA	KIROLAREN P.	EGOITZA	MUSIKA
Ibilgetua	3.805	11.266	3.119	144
Ibilgetu materiala	-	11.226	3.119	144
Ibilgetuko inbertsioak	3.805	-	-	-
Aktibo erabilkorra	536	423	988	109
Izakinak	375	-	-	-
Aurrekontuko zordunak	12	18	273	81
Bestel. zordun ez aurrekontukoak	34	-	11	-
Kaudimengab. zuzkid.	-	-	-	-
Diruzaintza	115	405	704	28
AKTIBOA	4.341	11.649	4.107	253
Ondare garbia	350	11.419	3.831	218
Ondare/Kapital soziala	708	10.834	1.339	279
Aurreko ekitaldietako emaitzak	(713)	547	2.480	(72)
Galerak eta Irabaziak	(132)	38	12	11
Erretsebak eta diru-laguntzak	487	-	-	-
Pasibo ez arrunta-Epe luzeko aldizkakotzeak	3.451	-	-	-
Hartzekodunak epe laburrera	540	230	276	35
Aurrekontuko hartzekodunak	211	157	116	9
Bestel. hartzek. ez aurrekontukoak	326	42	3	3
Erakunde publiko hartzekodunak	3	31	147	23
PASIBOA	4.341	11.649	4.107	253



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2016-KO EKONOMIA-ONDAREAREN EMAITZAREN KONTUA

Euroak milakotan

	IMESA	KIROLAREN P.	EGOITZA	MUSIKA
Tasak	-	1.480	1.279	133
Jasotako transferentzia eta diru-laguntzak	4	977	2.355	293
Kudeak. beste sarrera batzuk	133	76	76	1
Beste ekitaldi batzuetako sarr. eta mozkinak	-	-	-	-
KUDEAKETA ARRUNTEKO SARR.	137	2.533	3.710	427
Langileria-gastuak	(95)	(694)	(2.677)	(377)
Emandako transferentzia eta diru-laguntzak	-	(35)	-	-
Hornidurak	-	-	-	-
Hornidurak eta kanpoko zerbitzuak	(75)	(1.765)	(808)	(39)
Amortizaziorako zuzkidura.....	(99)	-	(213)	-
KUDEAKETA ARRUNTEKO GASTUAK	(269)	(2.494)	(3.698)	(416)
KUDEAKETA ARRUNTAREN EMAITZA	(132)	39	12	11
Bestelako sarrera eta gastu ez arruntak	-	-	-	-
ERAGIKETA EZ FINANTZARIOEN EMAITZAK	(132)	39	12	11
EMAITZA FINANTZARIOA	-	(1)	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA GARBIA	(132)	38	12	11



ERANSKINAK

A.1 FISKALIZAZIO-GAI DEN ERAKUNDEAREN IZAERA ETA EZARGARRIA ZAION LEGERIA

Eibarko Udala toki erakundea da, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzeari buruzko Legeak arautzen duena, 57/2003 Legeak, Toki administrazioa eraberritzeko neurriei buruzkoak eta 27/2013 Legeak, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasun neurriei buruzkoak aldarazitakoa; baita 2/2016 Legeak ere, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak.

Aurreko arategiak udalek ematen dituzten eskumen eta zerbitzu publikoak definitzen ditu, besteak beste: segurtasuna, garbiketa zerbitzua, suteak itzaltzea, ura hornitzea, saneamendu sarea, argiteria publikoa, hirigintzako diziplina, kultur eta kirol jarduerak, e.a.

Zerbitzu horiek guztiak nagusiki hauen bitartez finantzatzen dira:

- Udal zergak.
- Berariaz aurrez aipatutako zenbait zerbitzu finantzatzen dituzten tasa eta prezio publikoak.
- Partaidetza itunpeko zergetan eta ez itunpekoetan.
- Ondare sarrerak
- Diru-laguntzak
- Kreditu eragiketak

Ekitaldian ezargarrria den ekonomia eta kontularitzari buruzko araudi nagusia honako hau izan da:

- 21/2003 Foru Araua, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Toki Entitateen aurrekontuei buruzkoa.
- 86/2015 Foru Dekretua, Gipuzkoako toki erakundeen kontularitzako esparru arautzailea onesten duena.

2016ko urteko kontuak izan dira 86/2015 Foru Dekretuaren arau esparruarekin formulatu diren lehenengo kontuak. Horregatik, balantzeak, ekonomia-ondarearen emaitzen kontuak eta informazio alderagarria duten gainerako egoerek ez dituzte aurreko ekitaldiari buruzko datuak jasotzen; ordea, oroitidazkian 2016ko hasierako saldoen eta 2015eko itxirakoen arteko alde nagusien berri ematen da (ikus A.10 eranskina).

A.2 AURREKONTUA ETA ALDAKETAK

2016ko ekitaldirako aurrekontua 2016ko martxoko Osoko bilkurak onetsi zuen hasiera batean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2016ko martxoaren 22an eman zen argitara. Behin-betiko onetsitako aurrekontua apirilaren 27an argitaratu zen GAOn.

Ondoren, 2016ko aurrekontu aldaketak kapituluka xehatuko ditugu:

KAPITULUAK	Euroak milakotan					
	Kreditu gehikuntza	Kreditu gehigarria	Kreditu gaikuntza	Transferentziak		GUZTIRA
				-	+	
4. Transferentzia korronteak.....	-	-	154	-	-	154
7. Kapital transferentziak.....	-	-	5	-	-	5
8. Finantza aktiboen aldak. Geldikina	3.845	1.259	344(*)	-	-	5.448
SARRERAK GUZTIRA	3.845	1.259	503	-	-	5.607
1. Langileria-gastuak	-	-	249	(15)	46	280
2. Ondasun arrunten erosk. eta zerb.	480	114	45	(62)	435	1.012
4. Transferentzia korronteak.....	428	445	209	(85)	282	1.279
5. Kreditu globala.....	-	600	-	(635)	-	(35)
6. Inbertsio errealak.....	2.632	100	-	(142)	176	2.766
7. Kapital transferentziak.....	305	-	-	-	-	305
GASTUAK GUZTIRA	3.845	1.259	503	(939)	939	5.607

(*) Eperako banku gordailuen iraungipena

22 aldaketa-espedituek gastuen hasierako aurrekontua % 17 gehitu dute.

2016ko ekitaldirako Udalaren eta 3 erakunde autonomoen Aurrekontuaren likidazioa 2017ko matxoaren 21ean onartu zen Alkatetzaren dekretu bidez. Kontu Orokorra 2017ko uztailaren 26an onartu zuen Udalbatzak.

A.3 ZERGA, TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK

Ondoren, Likidazioaren lehenengo 3 kapituluaren sarrerak zehazten dira:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	DIRU-SARR.
Ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ).....	5.282
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga (TMIZ)	1.556
Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga (JEZ)	889
Hiri izaerako lursailen balioaren igoera	595
ZERGA ZUZENAK GUZTIRA	8.322
Eraikuntza, instalakuntza eta obren gaineko zerga (EIOZ).....	307
ZEHARKAKO ZERGA GUZTIRA	307
Hornidura zerbitzuak ustiatzen dituzten enpresen konpentsazioa.....	418
Zine eta ikuskizunetarako sarrerak	153
Tiburcio Anituan plaza urbanizatzeagatiko kalte-galeren ordaina	201
Etxez etxeko laguntza zerbitzua	68
Udal euskaltegia	58
Udal hilerriko zerbitzuak	56
Isunak.....	345
Premiamendu gainkargua	53
Berandutze interesak eta kostuak.....	6
Bestelako txikiago batzuk.....	529
TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK GUZTIRA	1.887
1, 2 eta 3 KAPITULUAK GUZTIRA	10.516

2017ko urtarrilean Hiri izaerako lursailen balio igoeraren gaineko zergaren gainean egindako likidazioetan 233.167 euroren diru-sarrerak barne hartu dira, aurreko urteko eskualdaketei dagozkienak.

GFAk lurralde osoan eta/edo estatuan jarduerak garatzen dituzten enpresen EJZren kuotak kudeatu eta biltzen ditu, hurrengo urteko lehenengo hilabeteetan udalen aldeko urteko likidazioak eginez. Udalak fiskalizatutako ekitaldian 2015eko likidazioa erregistratu zuen, 92.223 euroren zenbatekoan, eta 2016koa, 123.101 eurorena, 2017ko sarrera modura.

Udalak Gipuzkoako Uren Kontsortzioari uraren hornidura eta saneamendu zerbitzuen kudeaketa laga zion 2004ko ekainaren 11tik aurrera; hori dela eta, ez dira dagozkion tasak barne hartzen aurreko taulan. 2014ko azaroaren 12an beste hitzarmen bat izenpetu zen, 2024ko ekainaren 30era arteko iraunaldia duena; Udalak 2015ean 467.187 euro jaso ditu eta Kontsortzioak guztira 1,5 milioi euroren inbertsioak egin ditu 2016ko abenduaren 31ra arte.

Udalak Mankomunitateari zaborrak biltzeko tasaren kudeaketa laga zion 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera eta horregatik ez da diru-sarrerarik jaso aurreko taulan kontzeptu honen pean.

A.4 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZEK ERAGINDAKO SARRERAK

Hona hemen 2016an transferentzia eta diru-laguntza korronte eta kapitalekoek eragindako sarrerak:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan	
	KORRONTEAK	KAPITALA
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA		
Itunpeko zergetan partaidetza-konturako ordainketak 2016	17.178	-
Itunpeko zergetan partaidetza-likidazioa 2016	(358)	-
Itunpekoak ez diren zergetan partaidetza.....	35	-
Etxez etxeko laguntza	279	-
Gizarte Zerbitzuen eremuko proiektuetarako aparteko funtsa	144	-
Bestelako txikiago batzuk	131	-
EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA		
Gizarte Larrialdietarako Laguntzak	368	-
Lanbide: Enplegua sustatzeko tokiko ekintzak.....	359	-
Oinarrizko Lanbide Heziketako ikastaroak	300	-
H.A.B.E	262	-
Drogomenpekotasunak aurreikusteko ekipeak	95	-
Euskera biziberritzeko Plana	57	-
Irisgarritasuna 2016: 14 lan.....	-	1.838
Ekipamenduak eta efizientzia energetikoa 2016: 4 obra.....	-	600
Errebal erabilera anitzetarako eraikina	-	500
Eremu publik. hobekuntzak: Egiturentarren eta Bidebarrieta Pza.	-	679
Bestelako txikiago batzuk.....	179	160
BESTE BATZUK		
Europako funtsak-Zeen proiektua: J.A. Mogel auzoan hobek.	-	132
Bestelako txikiago batzuk.....	43	58
GUZTIRA	19.072	3.967

Udalak itunpeko zergetan parte hartzeagatik diru-sarrerak (Udal Finantzaketarako Foru Funtza) 2016ko konturako entzegei dagozkie eta urte horretako likidazio negatiboari, Gipuzkoako Finantzen zuzendaritza kontseiluak 2017ko otsailaren 14an onartutakoa. Itzulketa 2017an egingo da, 2016ko abenduaren 31n ordaindu beharreko kontua aurrekontuz kanpo erregistratuaz (A.9 eranskina).

Udalak osatu gabe zuen 2016ko abenduaren 31n enplegua sustatzeko ekintzen egikaritza eta egin gabe J.A. Mogel auzoan aurreikusitako hobekuntza lanak, data horretan finantzaketako desbideratzeak gertatu zirela, 335.151 euroren zenbatekoan, jada udalak kalkulatuakoz gain.

4. kapituluko sarrerak ondare sarrera modura aitortu dira; ordea, kapitalekoak Ondare Garbian erregistratu dira emaitzetara egozteko dauden jasotako diru-laguntzen kontuan, 2016ko abenduaren 31n 3,9 milioi euroren saldoarekin.



A.5 LANGILERIA GASTUAK

Hona hemen kapitulu honen xehapena 2016ko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioari, LZn jasotako lanpostu kopuruari eta 2016ko abenduaren 31ko plantillari dagokionez:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	Gastua 2016	LANPOSTU KOP.	
		LZ	Plantilla 16.12.31
Udalkideak (Alkatea eta 7 zinegotzi)	354	-	8
Behin-behineko funtzionarioa	47	1	1
Funtzionarioak.....	6.143	160	153(a)
Lan-kontratu finkoko langileak	1.108	54	41(b)
Aldi baterako lan-kontratuko langileak	699	-	35(b)
Bestelako ordainsariak aparteko soldata eta beste	27		
Ordainsarien guztizko partziala	8.378		
Gizarte Segurantza	2.150		
Pentsio osagarrietarako ekarpenak-Elkarkidetza	215		
Prestakuntza	40		
Bizitza aseguruak eta babes juridikoa.....	46		
GUZTIRA	10.829	215	238

(*) 42 bitarteko funtzionario barne hartzen ditu.

(b) Txandakako aldi baterako kontratuekin loturiko 6 erretiro partzial barne hartzen ditu. Gainera, Lanbide-EAEko enplegua sustatzeko programako aldi baterako 15 langile eta 13 behin-behineko lan kontratupekoak.

2016an Udalak langileen soldatak % 1 igo zituen.

Osoko bilkurak soldata masaren % 0,6ko funtsa zuzkitzea onartu zuen, langileei produktibitate-osagarriak ordaintzeko, guztira 39.849 euroren zenbatekoan.

2016an 222.198 euro ordaindu dira, 2012ko abenduko aparteko ordainsariaren % 49,73aren azken ordainketari dagozkionak.

Langileen ordainsarrietan langileei egindako 239.474 euroren ordainsariak jasotzen dira, aldi baterako ezintasun egoeretan Gizarte Segurantzako prestazioen osagarri kontzeptuan.

BGAE Elkarkidetzari egindako ekarpenek 32.800 euroren aparteko ekarpena barne hartzen dute, zenbait langilek 2012 eta 2013an egindakoak berdintzeko konpromisoan oinarrituta. Udalak 370.000 euroan balioesten du datozen ekitaldietan egin beharreko ekarpena eta 2016ko azaroko erabaki bidez ekarpena egitera konprometituz. Udalak erretiro aurreratu eta aurre-erretiro kontzeptuan ere sariak ordaintzen ditu; 2016an ez da kontzeptu honen izenean ordainketarik egin, baina aurreko bi ekitaldietan 122.162 euroren ordainketak egin ziren.

Altak

2016ko ekitaldian Udalak ondoko langile-kontratazio hauek gauzatu ditu:

	Kontratu kopurua	
Karrerako funtzionarioak		3
Bitarteko funtzionarioak (21 langile)		24
Lanen pilaketa eta aldi batera programak	13	
Ordezkapenak	11	
Aldi baterako lan kontratupekoak (34 langile)		42
Errelebo kontratua.....	2	
Obra kontratua/Ekoizpen inguruabarrak (Enplegua sustatzeko 15 programa)....	26	
Behin betiko bete arte bitarteko kontratua	14	
GUZTIRA		69



A.6 ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

2. kapitulu honetan erregistratzen dira ondasun arrunt eta zerbitzuen kontratazioari dagozkion gastuak; hona hemen kontzeptu esanguratsuenak:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O
Errentamenduak (Errebal azokako lokalak eta beste)	96	2
Ibilgetuaren konponketak, mantentze lanak eta zaintza	1.001	146
Eraikinak	179	72
Makineria eta instalaz. (eskailera mekanikoak, igogailuak e.a.)	507	67
Beste ibilgetu bat.....	315	7
Bulegoko materiala	94	2
Hornidurak	1.092	66
Energia elektrikoa.....	619	-
Gasa, erregaiak, ura eta beste	473	66
Komunikazioak: telefonoa eta posta	100	-
Aseguru sariak	123	-
Tributuak	2	-
Hainbat gastu	940	93
Publizitatea eta propaganda	137	3
kultura jarduerak	240	4
Bestelako hainbat gastu.....	563	86
Kanpoko enpresek egindako lanak	3.509	257
Udal aretoen garbiketa	769	-
Etxez etxeko laguntza zerbitzua.....	283	-
Haur eta gazteen aisialdi zerbitzua.....	240	18
Hasierako lanbide-prestakuntza	225	-
Antzokia Koliseoko zerbitzu orokorrak.....	193	-
Udal autobusa	179	-
SD Eibarren babesletza	121	-
IZFE informatikako laguntza zerbitzua.....	121	-
Kanpoko enpresek egindako beste lan batzuk	1.378	239
Dietak, mugikortasuna eta lekualdaketak	6	-
Dedikaziorik gabeko zinegotzien dietak, udal bileretara joateagatik	152	-
GUZTIRA	7.115	566



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hona hemen 2016ko inbertsioen xehapena:

DESKRIBAPENA	Euroak milakotan	
	Gastua	D-O
Azpiegitura eta urbanizazioa	4.903	2.450
Errebal erabilera anitzetarako eraikinean lanak	706	1.859
Arane kalean plaza konpontzea.....	615	-
Egigurentarren plaza zaharberritzea.....	459	-
Ipuruako igerileku irekietan aldagelak zaharberritzea.....	240	-
Bestelako txikiago batzuk	2.883	591
Makineria, instalazioak, altzariak eta informatikako ekipoak	115	64
Gauzako beste inbertsio batzuk	320	22
Azterlanak eta proiektuak	147	256
GUZTIRA	5.485	2.792

(*) 16.12.31n 2,7 milioi euroan hitzartutako urteanitzeko kredituak



A.7 TRANSFERENTZIA ETA DIRU-LAGUNTZA KAPITALEZKOAK ETA ARRUNTAK

Hona hemen gastu kapitulu hauen xehapena:

KONTZEPTUA	Euroak milakotan		
	4. Kap.	7. Kap.	D-O
SEKTORE PUBLIKOARI TRANSFERENTZIAK	2.817	-	22
3 udal erakunde autonomo (ikus A.11)	1.290	-	-
IMESA (ikus A.11)	4	-	-
Debarbarreneko Eskualdeko Mankomunitatea Kale-garriketa zerbitzua	1.295	-	-
Debarbarreneko Eskualdeko Mankomunitatea: Hiri hondakinak jaso eta tratatzeko zerbitzua	228	-	22
DIRU-LAGUNTZA IZENDUNAK	607	-	513
DEBEGESA: 2016ko Kudeaketa plana	209	-	-
Armeria Eskolako ikasle ohien elkarte: 100 langabeturi prestakuntza	-	-	200
Tekniker: Enpresa teknologikoen habia gaitzeko lanak	-	-	200
Eta Kitto! elkarte: 2 aldizkariren edizioa, berbetan proiektua eta beste	78	-	52
17 elkarte (urteko jarduera eta/edo kultur jarduerak)	82	-	13
Eibar Kirol Taldea (urteko txirindu-jarduera) eta beste 6 elkarte (kirol probak antolatu)	69	-	3
Eibar zentro komertzial irekia (urteko jarduera eta Gabonetako argiak jartzea)	62	-	9
Bic Berrilan (Toribio Echevarria saria), Merkat. elkarteak eta beste elk. bat (sust. ekon.)	49	-	23
Euskaraz koop. E eta beste bi elkarte: euskara sustatzea	17	-	11
Jubilatuena 4 egoitza (urteko jarduera) eta beste 2 elkarte (Gizarte Ekintza)	20	-	2
7 ikastetxe: eskolaz kanpoko jarduerak	15	-	-
DIRU-LAGUNTZA ZUZENAK	49	-	-
Eibar zentro komertzial irekia	30	-	-
Jubilatuena 4 egoitza : aretoen mantentze-lanak	19	-	-
LEIHA BIDEZ ESLEITUTAKO DIRU-LAGUNTZAK	1.104	108	214
Gizarte-larrialdietarako laguntzak (342 hirugarrenak)	403	-	22
Giz. Larr. Lag.osagarriak: eskolaz kanpokoak (36 hirugarren), langabetu eta pentsiodunak (341 hirugarrenak)	-	-	54
-	3	-	-
Alokairuari laguntzak (37 hirugarren)	40	-	-
Garapenerako nazioarteko lankidetzak (7 erakunde)	197	-	49
Umeak eskolara (eskola, kirol mat., arropak, betaurrekoak e.a.) eta ikasleei laguntzak	265	-	-
Igogailuak instalatu eta ordezkatzeko (25 onuradun)	-	108	-
16 enpresa: lehiakortasuna hobetzeko azterketak	24	-	55
11 kirol-elkarte: Urteko jarduera	41	-	33
Teknologia-erronkak (8 enpresa) eta ekintzailak (11 onuradun)	28	-	42
Obra txikiak	52	-	10
AURREKO EKITALDIETAN EMANDAKO DIRU-LAGUNTZAK	308	240	72
BESTE BATZUK	179	-	-
4 udal talde politikori egindako esleipenak	127	-	-
Beste txikiago batzuk Landa garapenerako elk. kuota, Eudel, enplegu planaren kudeaketa, e.a.	52	-	-
GASTUEN 4. ETA 7. KAPITULUAK GUZTIRA	5.064	348	821

Aurreko taulako D-O zutabeko saldoek 2016an gauzatutako jardueren diru-laguntza hitzartuak barne hartzen dituzte, gastu modura 2017 hasieran kitatu eta aitortu zirenak, guztira 149.986 euroren zenbatekoan.

Debabarrena Eskualdeko Mankomunitateari egindako ekarpenak Mankomunitatearen aurrekontua abiaburu hartuta kalkulatu ziren, ondoko taulako irizpideen arabera:

Programa-gastu kontzeptua	Banaketa irizpidea	Euroak milakotan	
		%	Gastua
KALE GARBIKETA			1.295
Langileria gastuak	langileak Eibarren	38,7	927
Makineria kostuak.....	Makineria Eibarren	30,1	232
Gainerako kostuak	biztanleak	37,6	136
HIRI HONDAKIN SOLIDOEN KUDEAKETA			250(*)
Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren isurketa kanona	biztanleak	37,6	1.303
Egitura kostuak	biztanleak	37,6	211
Zerbitzuaren gainerako kostuak	Edukinontzi kop.	33,3	1.389
-Eibarren zabor tasaren diru-bilketa 2015eko uria-2016ko iraila		-	(2.653)

(*) 4. hiru hileko likidazioa 22.786 euroren zenbatekoan D fasean

Mankomunitateko auditatu gabeko kontuek 2016an 582.531 euroren aurrekontuko superabit bat eta 2016ko abenduaren 31n 4,7 milioi euroren Diruzaintza erabilgarriaren berri ematen dute.

2014an Udalak Mankomunitateari zaborren tasaren kudeaketa laga zion eta adierazi zion mankomunaturiko zerbitzuaren aurreikusitako kostua ordainduko zuela, askitasuna bermatuz; horretarako, hiru hilean behin likidazioak egingo ditu eta zerbitzuaren balioetsitako kostua egiazko kobrantzekin alderatu. Likidazio hauek atzerapenez egiten dira hiruhileko natural bakoitza amaitzean eta honenbestez, ez dira aintzat hartzen 2016ko azken hiruhilekoan zorpetutako sarrerak, 742.115 euro egin zutenak.

A.8 AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK ETA FINANTZA PASIBOAK

Honekin baterako taulan aurrekontuaz besteko eragiketen kontzeptuan 2016ko abenduaren 31ko saldo nagusiak zehaztu dira:

Deskribapena	Euroak milakotan	
	Ordaintzeko 16/12/31	
Ezarpenak epe laburrera	13.150	
Bestelako txikiago batzuk	4	
SALDO ZORDUNAK GUZTIRA	13.154	
Epe luzeko bermeak	72	
Aurrekontukoak ez diren beste hartzekodun batzuk: UFFF likidazio negatiboa	358	
Langile eta profesionalen atxikitako NUIZarengatik Foru Ogasun hartzekoduna.....	419	
Gizarte Segurantzak: Langileei atxikipenak	331	
Bermeak eta gordailuak epe laburrera	490	
Bestelako txikiago batzuk	3	
SALDO HARTZEKODUNAK GUZTIRA	1.673	



Zorpetzea

Ondotik 2016an indarrean izan diren maileguen osaera eta mugimenduak xehatuko ditugu:

Euroak milakotan							
BANKUA	Hasierako kopurua	% interesa	Iraungipena Urte kop. azkena	zorra 15/12/31	Berria	Amortiz. 16/12/31	Zorra 16/12/31
Kutxabank	1.090	euribor+ % 0,15	12 abe.2017	224	-	112	112
Kutxabank	840	Euribor+ % 0,15	12 abe.2019	336	-	84	252
Kutxabank	1.995	Euribor+ % 1,30	12 abe.2022	1.397	-	200	1.197
Santander Bankua.....	1.995	Euribor+ % 1,22	12 abe.2022	1.396	-	199	1.197
Sabadell Guipuzc. Bkua.....	922	Euribor+ % 0,96	12 abe.2027	843	-	105	738
GUZTIRA				4.196	-	700	3.496
							Pasibo korrontea-kreditu etxeekiko zorrak (iraungipena 2017) 701
							Pasibo ez korrontea-epe luzeko zorrak 2.795

A.9 AURREKONTUKO ZORDUNAK

Ondoren, 2016ko abenduaren 31n kobratzeko dauden aurrekontuko eskubideak zehaztu ditugu:

Euroak milakotan						
KAPITULUAK	Aurrekontu itxiak				2016 aurrek.	
	1/1/16	Baliog.	Kobr.	16/12/31	16/12/31	GUZTIRA
Ondasun higiezinaren gaineko zerga.....	320	9	67	244	113	357
Trakzio Mekanikodun Ibilgailuen gaineko Zerga.....	140	25	26	89	57	146
Hiri izaerako lursailen balio igoeraren g. zerga.....	230	5	52	173	25	198
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	147	30	15	102	34	136
Eraikuntza, Instalakuntza eta Obren gaineko Zerga	59	1	12	46	79	125
Isunak.....	154	15	35	104	60	164
Beste hainbat sarrera	288	236	52	-	148	148
Bestelako txikiago batzuk	99	3	60	36	95	131
1etik 3rako kapituluaren guztizko partziala	1.437	324	319	794	611	1.405
4. kap. Transf. eta dirul. arruntak	802	1	725	76	672	748
5. kap. Ondare sarrerak	5	-	2	3	1	4
7. kap. Kapital diru-lag. eta transf.....	1.444	-	1.377	67	3.430	3.497
8. kap. Finantza aktiboak-langileei aurrerakinak.....	-	-	-	-	5	5
GUZTIRA	3.688	325	2.423	940	4.719	5.659

Udalak 1,1 milioi euroan balioetsi du 2016ko abenduaren 31n nekez kobragarri diren saldoentzako hornidura eta halakotzat jo ditu urtebetetik gorako antzinasuna duten zerga zordunak eta indarreko ekitaldiko zor-saldoen % 45; ehuneko hori kalkulaturik diru-bilketako datu historikoak aintzat hartuta.



A.10 AKTIBO EZ KORRONTEA ETA AURREKO EKITALDIETAKO EMAITZA

Ondotik Udalaren balantzeko aktibo ez korronteen osaera eta mugimenduak zehaztuko dira:

KONTUA 16.12.31	Euroak milakotan						Saldoa Bst. batzuk
	Saldoa 15.12.31	Aldaketa Kont. plana	Inberts. eta bajak	Eskuald. Eamaitza- <2016	Amortiza -zinoa		
ibilgetu ez-materiala	56	-	-	-	-	-	56
ibilgetu materiala	52.261	32.836	3.668	(134)	(968)	3.701	91.364
Lursailak	8.832	-	-	-	-	-	8.832
Eraikuntzak	37.919	-	-	240	-	-	38.159
Azpiegiturak	-	32.836	3.204	(257)	(958)	3.701(*)	38.526
Makineria, altzariak eta beste	5.510	-	464	(117)	(10)	-	5.847
Abian dagoen ibilgetu materiala	454	-	801	-	(16)	-	1.239
Lurraren ondare publikoa	7.487	-	-	(121)	-	-	7.366
Taldeko erak. finantza inberts.	1.130	11.909	-	-	-	-	13.039
Finantza inbertsioak epe luzera	419	-	-	-	-	(364)	55
Ibilg. mater. pilatutako amortiz.	(16.959)	(13.072)	-	-	5	(1.485)	(31.511)
Lurraren Ondare Publik. pilat. amort. ...	(1.142)	-	-	40	-	-	(1.162)
AKTIBO EZ KORRONTEA GUZTIRA	43.706	31.673	4.469	(215)	(979)	3.337 (1.545)	80.446
Atxikitako ondarea	11.909	(11.909)					
Lagatako ondarea	7.905	(7.905)					
Ondarea Erabilera orokorrerakoa	32.836	(32.836)					
EGOERA BEREZIKO ONDAREA GUZTIRA (A)	52.650	(52.650)					

(**) Amañan trenbide gaineko ibilbideko lanak hartzea, EAEk 3,1 milioi euroan egindakoak eta erregularizazioa.

2015ean udalaren kontularitzako araudia aldatu zen eta irizpide berriak finkatu ziren, zehazki egoera berezian dauden aurreko Ondare kontuetan eragina dutenak; bi kasutan Ibilgetu material eta finantzazkora aldatu dira eta Lagatako ondarearen kasuan erregularizatu egin da. Azken erregularizazio hau eta azpiegituren pilatutako amortizazioaren erregistroak Balantzeko Ondare Garbiaren aurreko ekitaldietako emaitzen kontuan ere eragina dute:

Euroak milakotan	
Deskribapena	Zenbatekoa
Aurreko ekitaldietako emaitzen hasierako saldoa	(87.326)
Kontuen Planaren aldaketa- Lagatako ondarea – saldoaren erregular	7.905
Aldaketa Kontuen Plana-erab. orok. emandako ondarea-15.12.31n pilatutako amortiz.	13.072
2015eko mozkinak	(1.510)
EAEk Amañan trenbide gaineko ibilbideko lanak ematea	(3.118)
Azpiegiturak: Egiatzko kostua jasotzeko saldoak erregularizatzea (15.12.31n aldeak)	(583)
Azpiegiturak: Aktibatzen ez diren 2016ko altak erregularizatu	958
Aurreko urteetako ibilgetuko bst. saldo erregularizatu batzuk	21
AURREKO EKITALDIETAKO EMAITZEN AZKEN SALDOA	(70.581)

Azpiegiturak amortizatzeko zuzkidura kalkulatzeko ez ziren aintzat hartu 1.417 elementu, guztira 15,3 milioi euroren kostua izan zutenak. Berebat, ez ziren elementu hauek aintzat hartu azpiegituran pilatutako amortizazioa kalkulatzeko eta honenbestez, handitu egin behar



da zenbatekoa eta murriztu aurreko ekitaldietako emaitzak, xehetasunezko kalkulu bidez zehaztu beharreko zenbatekoan.

Finantza inbertsioen idazpuruan IMESAn partaidetza barne hartzen da, Ondare Garbia baino 357.917 euroren saldo handiagoarekin.

A.11 UDAL ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA SOZIJETATE PUBLIKOAK

Transferentzia eta diru-laguntzek eragindako sarrerak:

Ondotik jasotako transferentzia eta diru-laguntzak jaso ditugu:

	Euroak milakotan			
	Kirolak	Egoitza	Musika	IMESA
Udala.....	912	165	213	4
EAE-Hezkuntza Saila (2016-17 ikasturtea).....	-	-	80	-
GFA-zaharren egonaldiak eta txikiago beste batzuk	65	1.895	-	-
Doantzak eta txikiago beste batzuk.....	-	295	-	-
GUZTIRA	977	2.355	293	4

Langileria

Ondoren, 2016ko abenduaren 31n langile gastuak eta plantilla zehaztu dugu:

	Euroak milakotan			
	Kirolak (a)	Egoitza (b)	Musika (c)	IMESA
Funtzionarioak	-	-	16	-
Lan-kontratu finkoko langileak.....	523	592	222	47
Aldi baterako lan-kontratuko langileak.....	1	1.476	42	-
Gizarte Segurantzza	155	539	85	13
Elkarkidetza	8	38	8	-
Aseguruak eta beste gastu sozial batzuk.....	7	32	4	34
LANGILE GASTUAK GUZTIRA	694	2.677	377	94

	Plantilla 16.12.31n			
Funtzionarioak	-	-	1	-
Lan kontratuko langile finkoak	8	20	4	1
Aldi-baterako lan kontratuko langileak.....	9	65	9	-
PLANTILLA GUZTIRA (arduraldi partziala duten lanpostuak)	17(3)	85(12)	14(9)	1
2016 LZ-KO LANP. GUZT. (arduraldi partzialeko lanpostuak)	15(4)	58(1)	24(20)	-

2016ko abenduan obra edo zerb. jakinerako kontraturiko 3, bat Enplegu Planekoa.

(b) 38 bitarteko lanpostu hutsa betetzen eta gainerakoak baja, lanaldi murrizketa eta urte amaierako oporrak betetzen.

(c) Funtzionario lanpostua % 50ean eta 8 lan kontratupeko bitarteko , % 12 eta % 56 bitarteko dedikazioa dutenak.



2016ko ekitaldian erakunde autonomoek ondoko langile-kontratazio hauek gauzatu dituzte:

	Kontratu eta pertsona kopurua	
	Kirolak	Egoitza
lan kontratupeko bitartekoak	2	71
Obra edo zerbitzu jakineko lan kontratupekoa	4	-
Kontratuak guztira	6	71
Pertsona kopurua	5	41

Ondasun arrunt eta zerbitzuen erosketak

	Euroak milakotan			
	Kirolak	Egoitza	Musika	IMESA
Konponketak eta zaintza	298	34	1	11
Argindarraren horniketa	209	39	6	1
Gas natural eta gasolio horniketa	151	39	-	-
Beste hornigai batzuk (ura, aldagela, e.a.)	74	42	3	-
Hainbat gastu: publikotasuna eta kultura jarduerak	17	36	1	-
Enpresek egindako lanak	992	606	24	12
Instalazioen garbiketa	260	-	23	-
Sorospen zerbitzua	179	-	-	-
Sukalde zerbitzua.....	-	269	-	-
Ikuztegi zerbitzua.....	-	204	-	-
Kirol ikastaroak ematea, Orbearen kudeaketa eta bst.batz.	553	133	1	12
Bestelako gastuak	24	12	3	51
GASTUA GUZTIRA	1.765	808	38	75

IMESAren Batzar nagusiak 2015eko abenduan erakundea desegitea erabaki zuen 2017ko otsailean administrazio-kontseiluak erabaki zuen sozietatearen aktibo eta pasiboak osorik lagatzea Udalari, ordainik jaso gabe, eta urte bereko ekainaren 5ean sozietatearen batzar nagusiak eta osoko bilkura onartu egin zuten; txosten hau idatzi dugun datan lagapena eskrituran jasotzeko dago. Eskritura hori Merkataritza Erregistroan erregistratzen denean joko da sozietatea desagertutzat.

IMESAk balantzeko beste hartzekodun batzuen idazpuruan 198.391 euroren zuzkidura barne hartzen du, eskagarri litzatekeena baldin eta banketxe batekin gauzatutako SWAP kontratu baten ondorioz bideratutako errekurso judizialaren ebazpena sozietatearen aurkako balitz. Ordea, aldeko suertatuko balitz, gastuak itzuliko lirateke. 2016ko abenduaren 31n IMESAk sustatutako etxebizitza eta garajeen erosleek aurkeztutako beste 3 auzi judizial zeuden eta eskatutako zenbatekoak 775.081 euro egiten ditu. Sozietateak 2 eraikuntza-enpresari guztira 200.133 euroren atxikipean egin zizkien, eraikuntzako balizko akatsen berme modura; IMESAk balioetsi du ez dela beharrezkoa zuzkidura osagarririk egitea eta horren berri eman du oroitidazkian.



A.12 KONTRATAZIOAREN ANALISIA

AZTERTUTAKO ESPEDIENTEAK

Euroak milakotan

KONTRATUA	ESLEIPENA			GASTUA 2016	AKATSAK		
	Data	Prozed.	Zenbat. (*)		A	B	C
UDALA							
ZERBITZUAK							
1. Udal aretoen garbiketa (2 urte)	aza-13	Irekia	1.384	769			
1 eta 2 aldak. (lan berriak)	2014-15		143				
2016rako luzapena	2015-16						
2. Etxez etxeko laguntza	mar-15	Irekia	283(**)	283			
Urtebeteko luzapena.....	mar-16						
3. Hasierako lanbide-prestakuntza 2015-16 ikast.	eka-15	Irekia	225	225			C
Luzapena 2016-17							
4. 43 eskailera mekaniko mantentzeko lanak (3 urte).....	aza-15	Irekia	1.119	344			
5. Haur eta gazteen aisialdi zerbitzua (2 urte).....	aza-15	Irekia	480(**)	240			
6. Antzokia Koliseoko zerbitzu orokorrak (2 urte).....	aza-15	Irekia	386 (**)	193			
OBRAK							
7. Errebal erabilera anitzetarako eraikina.....	abe-15	Irekia	4.953	706			C
Murru eta eraginpeko zerb. aldaketa	aza-16		365				
8. Ipuruako igerileku irekietan aldagelak zaharber.....	uzt-16	Irekia	220	240			
9. Arane kalean plaza konpontzea	abu-16	Irekia	565	615			
KIROL PATRONATUA							
ZERBITZUAK							
10. Kiroldegiaren garbiketa eta igerileku irekiak (2 urte).	aza-13	Irekia	295	147			
Urtebeteko luzapena.....	2015-16						
11. Igerilekuetan sorospen zerbitzua (2 urte).....	aza-13	Irekia	372	179		B1	
Urtebeteko luzapena.....	2015-16						
SAN ANDRES EGOITZA							
ZERBITZUAK							
12. Ikuztegi zerbitzua (2, 7 urte)	mar-12	Irekia	551(**)	204	A1		C
Urtebeteko luzapena.....	2014-15						
13. Sukalde zerbitzua (2 urte)	aza-12	Irekia	542	269	A1	B1	
Urtebeteko luzapena.....	2014-15						
GUZTIRA			11.883	4.412			

(*) Esleitutako zenbatekoak BEZa barne

(**) Aleko prezioak Balioetsitako esleipen-zenbatekoa, 2016ko egiazko egikaritza datuekin

AKATSAK	Esped. kopurua	Esleip. zenbat.
A ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIOA		
1. Pleguetan eskatutako subrogazioa (160.1 art.).....	2	1.093
B ESLEIPENA ETA EGIKARITZA		
1. Puntuazioa justifikatu gabeko txosten teknikoa.....	2	914
C ESPEDIENTEAREN BERARIAZKO ALDERDIAK		



A.13 LEGEZKO AUZIAK

2015eko azaroan Nahitaezko Desjabetzearen Lurralde Epaimahaiak Sakun parkeko lursailen prezio justua 926.238 euroan finkatu zuen; alabaina, Udalak eta jabeak, biek ala biek errekurritu egin zuten balorazio hau, Udalak 36.793 euroan balioztatu zituelako lursail horiek eta jabeak, berriz, 1,8 milioi euroren zenbatekoan; errekurtsuak ebatzi gabe daude.

Bestetik, 2015ean Udalak HAPOren aldaketa bat onartu zuen Txonta eremurako, 18 enpresaren toki-aldaketa aurreikusten zuena. 2016ko uztaietan Udalak enpresetako bat tokiz aldatzeko hitzarmen bat izenpetu zuen eta okupatutako eraikina eta toki-aldaketagatiko kalte-ordainak 1,5 milioi euroren zenbatekoan baloratu zituen; kopuru hori dagokion hirigintzako birpartzelazioa onartzean sortuko diren eraikuntza-eskubideekin berdinduko da. Aldez aurretik EAErekin izenpetutako beste hitzarmen baten bidez, honek enpresari kopuru berean balioztaturiko pabiloi bat alokatu zion eta gerora begira, aurrez aipatutako eraikuntza-eskubideekiko trukea aurreikusi zen. Enpresaren eta EAEren arteko hitzarmenak aurreikusten zuen birpartzelazioa onartzen ez bazen, Udalak EAEri 1,5 milioi euro ordainduko zizkiola gehienera 8 urteko epean. Hasieran aipatutako HAPOren aldaketa baliogabe gelditu zen EHJANaren 2017ko apirilko epai bitartez, aldaketaren bideragarritasun ekonomikoa auzitan jarri izanaren ondorioz. Horregatik, nola eta Udalak hitzarmenaren kostua eremu horretako etorkizuneko hirigintzako garapenei egozten ez dien, EAEri 1,5 milioi euro ordaindu beharko dizkio enpresa hartu zuten pabiloien ordainetan.

Azkenik, aparkaleku baten jabeak udal obra batek eragindako kalteak ordaintzeko eskatzen zuen, zenbatekoa zehaztu gabe; baita, 4 urtetan 41 aparkaleku-plaza ezin alokatu izategatik kalte eta galerak ere, 211.150 euroren zenbatekoan balioztatu dituenak. Udalaren, kontratistaren eta proiektuaren erredaktorearen erantzukizunak bereiztea da ebazteko dagoen beste errekurtsu baten xedea.

A.14 ONDARE ETA AURREKONTUKO FINANTZA-ADIERAZLEAK

Ondoren, Kontuen Epaitegiaren Tokiko Esparruan Koordinazio Batzordeak eta Autonomia Erkidegoetako Kanpo Kontrolerako Organoek zehaztutako finantza adierazleen hautaketa zehaztuko da:

IZENA ETA KALKULUA	(*)2014	(*)2015	2016
Epe laburreko likidezia (funts likidoak eta kobratzeko eskub./pasibo korrantea)	(%) 231	212	437
Inbertsio ahalegina (6. eta 7. kap. obligazioak/obligazio aitortuak)	(%)25 14	20	
Zalantzako kobragarritasuneko zordunen indizea (zalantz.kobr.saldoa/kobratzekoa).....	(%) 22	34	18
Autonomia fiskala (sarrera fiskalak/sarrerak guztira)	(%) 32	33	28
Sarrera arrunten gainean zorpetze finantzarioa (pasibo eskagarria/sarrera arruntak).....	(%) 20	14	12
Langile gastuen indizea (langile gastuak/ sarrera arruntak)	(%) 38	37	37
Ekitaldiko finantza zama (3 eta 9 kap. gastua/sarrera arruntak)	(%) 3	8	2
Aurrezki gordinaren indizea (aurrezki gordina/sarrera arruntak).....	(%) 20	24	22
Biztanleko finantza zorra (finantza pasibo eskagarria/biztanle kop.)	(euroak) 201	153	128
Biztanleko gastua (obligazio aitortuak/biztanle kop.)	(euroak) 1.137	1.040	1.081
Biztanleko inbertsioa (6 eta 7 kap. obligazioak/biztanle kop.)	(euroak) 287	149	213

(*) HKEEK fiskalizatu gabeko ekitaldiak.



TXOSTENAREN ONDORIOEI EGITEN ZAIZKIEN ARRAZOIBIDEAK

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

III.1 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA

Erakunde autonomoak

3 erakunde autonomoetan, kudeatzen dituzten tasen erroldak ez dituzte euren lehendakariak onartzen. Gainera, Kirolaren Patronatuko eta San Andres Egoitzako tasak borondatezko aldiak ordaintzeko egutegiak finkatu behar ziratekeen.

San Andres Egoitzak kudeatzen dituen tasen onarpenari dagokionez, adierazi behar da Gipuzkoako Foru Aldundia dela zerbitzu horiek arautzen dituen, bai eta erabiltzaileak egin beharreko ekarpen ekonomikoa arautzen duena ere, honako xedapen hauetan oinarrituz:

- Ekainaren 3ko 41/1997 Foru Dekretua, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizartekintza Departamentuaren minusbaliatuen egoitzetako prezio publikoak onartzen dituena.
- Apirilaren 30eko 20/2002 Foru Dekretua, Gipuzkoako adineko pertsona ezinduentzako lekuak eskatu eta emateko arauak ematen dituena.
- Urriaren 26ko 30/2010 Foru Dekretua, baliabide sozio-sanitarioen sareko zerbitzuen erabiltzaileen diru ekarpenak arautzen dituena.

Xedapen horiez gain, onartu zuen Gipuzkoako Foru Aldundiak, 2014ko otsailaren 28an, 210/2014 Foru Agindua onartu zuen, erresidentzia-egoitzetako eta eguneko zentroetako zerbitzuen erabiltzaileek ordainketetan egiten dituzten ez-ordaintze eta berandutze protokoloa ezartzen duena.

Erabiltzailearekin sinatutako kontratuan, akordioen atalean, hirugarren puntuan, zera adierazten da tasak ordaintzeko borondatezko epeari buruz:

Egoiliarra behartuta dago, kontraprestazio gisa, 2002ko apirilaren 3ko 20/2002 Foru Arauari jarraituz Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta interesatuaren artean adostutako prezioa ordaintzera. Ordainketa banketxearen errezipo bidez egingo da eta egoiliarrak adierazitako erakundean aurkeztuko da, emandako zerbitzuaren hurrengo hileko lehen hamabostaldian.

Prezioak urtero urtarrilaren 1ean eguneratuko dira, Gipuzkoako Foru Aldunditik jasotzen diren argibideei jarraituz.

Prezioak egoiliarraren egonaldiaren arabekoak izango dira, eta ez da ordainketarik egingo egoiliarra aldi baterako egoitzatik kanpo egoteagatik, salbu eta San Andres Egoitzaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmenetan islatutako kasuetan.



III.2 LANGILERIA

Udalak, 2016an [...]. Hori dela eta, antzeman da Udalak 4 kasutan enplegu-bulegora jo zuela berariazko deialdi bat egin ordez.

Aldi baterako langileen hautaketa Lanbideren bidez. Kasu horietan, publikotasuna, Lanbide beraren webgunean egiteaz gain, Udalaren webgunean eta sare sozialetan egin zen, beraz, bete egin zen publikotasun-printzipioa. Enplegu-eskaintza hura ez zen mugatu lanik ez zuten pertsonetara: orduan egin ziren deialdi haiek irekita zeuden pertsona interesdun guztientzako. Iraupen luzeko prozesu hauetan, izangai guztiei eman zitzaizkien hautaketa-baldintzen eta -irizpideen berri.

Funtzionarioentzako 2016an amaitutako 3 deialdiak 2006, 2008 eta 2011ko lan-eskaintzei zegozkionak dira. Araudiak 3 urteko epea ezartzen du hautaketa-prozesuak egiteko, eta hori ez da bete.

2006, 2008 eta 2011 LEP: Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legeko testu bategina (lehen, 7/2007 Legea) onartzen duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 70.1 artikuluan jasotako hiru urteko epeak eta 7/2007 Legearen aurretik aurreikusita zegoen urtebeteko epeak berez ez dakarte iraungitze-eperik, hautaketa-prozesua epe horien barruan amaitzeko eta prozesua larregi ez luzatzeko Administrazioari ezarritako betekizun edo agindu baino ez baitira. Bestalde, adierazitako epe horren igarotze hutsak ez luke deuseztagarritasunik ekarriko enplegu-eskaintza beteko balitz, 39/2015 Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 48.3 artikulua ezarritakoaren arabera, hauxe jasotzen baitu: “Epez kanpo egindako administrazio-jarduketan kasuan, epearen izaerak hala eskatzen dutenean bakarrik izango da egintza deuseztagarri”. Ez da horrelakorik ondorioztatzen aurrez esandako agindu horietan.

Erakunde Autonomoak

2016an aldi baterako langileen kontratazioak gauzatu dira bai San Andres Egoitzan bai Kirolaren Patronatuan ere, berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatuko dituzten prozedurak baliatu gabe; kontratazio horiek batez beste 53 eguneko iraupena izan dute; alabaina, badira ekitaldi honez lehenagoko kontratuak, baita 2016an izapidetutakoak ere, indarrean daudenak txosten hau idatzi dugun datan.

San Andres Egoitzan badira kontratazioak 24 ordu baino gutxiagoan egin beharrekoak eta badira une batzuk non ez dugun langilerik aurkitzen lan-poltsetan; edo lan egiteko prest daudenek ez dute kontratua nahi iraupenagatik edo baldintzengatik.

Egun, garbiketako langileei dagokienez, ez dira pertsona gehiago sartuko lan-poltsan eta hura agortzen denean, Udaleko lan-poltsara joko da, zeinaren oinarriak 2017ko abenduaren



15eko Gobernu Batzarrean onartu ziren. Egoitzaren patronatuaren abenduaren 21eko batzarrean adostu zen poltsa horretara jotzea.

Klinika-laguntzaileen kasuan, lanpostu berriak betetzeko, deialdi publiko bat egin da Lanbiderekin lankidetzan, nahiz eta izena emanda zeuden 11 pertsonetatik 8k bakarrik bete baldintzak. 8 horietatik 7 etorri dira elkarrizketara eta bi hautatu dira. Arazo larriak daude lanpostu horiek betetzeko, baina jarraituko dugu hautaketa-prozesuak normaltzen.

Musika Eskolaren lanpostuen zerrendak zehazten du 20 lanpostuk dedikazio partziala dutela, baina ez du adierazten zein den dedikazio-portzentajea.

2018ko urtarrilaren 16an Musika Eskolako Patronatuak izango duen bileran sartuko dira dedikazio-portzentajeak; eta lanpostuen zerrenda, beti, ikasturte bakoitzaren hasiera baino lehen aldatuko dugu.

Egoitzaren aurrekontuko langileei buruzko eranskinak kopuru bakar batean jasotzen zituen - ordainsarien % 35 egiten zuena - jaiegun eta gaueko orduengatik hobariak eta aldi baterako langileak kontratatzeako kredituak.

Azpimarratu behar da San Andres Fundazioaren jarduera zaharren egoitza izatearena dela, non zerbitzua urteko 365 egunetako 24 orduetan ematen den. Ondorioz, gaueko txandan beti daude bi langile eta jaiegunetan lanegunetako langile kopuru berbera egoten da. Gainera, langileen lizentziak eta baimenak % 100ean betetzen dira. Beraz, honako kontzeptuetarako (jaiegunetako gehigarriak, gaueko gehigarriak, lizentzien eta baimenen estaldurak, aldi baterako ezgaitasun-aldien eta oporren estaldura) zuzendutako zenbatekoaren pisu erlatiboa esanguratsua da, pertsonalaren partidaren zenbateko osoaren % 35 izatera iritsi da-eta.

Onartutako pertsonalaren eranskinean, zenbateko honen aurrekontuarekin batera, lerro bakar batean doa eranskina ulergarriago egite aldera; baina partida horren banakatzea, kontsultatu nahi duen edonoren esku dago.

III.3 KONTRATAZIOA

1,1, milioi eurotan esleitutako bi kontratutan (12 eta 13 espedienteak), Egoitzak, baldintza-orrietan, adjudikatzaile berriak aurreko kontratistaren pertsonala subrogatzea exijitu zuen, baina baldintza hori bakarrik erator daiteke enpresen eta langileen arteko sektoreetako hitzarmenetatik.

-GARBITEGI ZERBITZUA- 12. Espedienteari dagokionez, zeina EIBARKO SAN ANDRES FUNDAZIOAK adjudikatu zion GURESERBI SM enpresari, 2012ko martxoaren 31n,

administrazio-baldintza berezien orriak, Kontuen Auzitegiaren txostenean adierazten denez, lanlekuan kontratuari lotuta dauden langileen subrogazioa ezartzen du.

Orrietan subrogazioa ezartzearen arrazoia zera da: garbitegi-zerbitzua emateko kontratua Enplegu Zentro Berezi batek egiten zuela, GURESERBI SM enpresa, nahiz eta erreserbatutako kontratu bat ez izan.

Hala, Fundazioaren asmoa ez zen desgaitasuna duten langileek lanean jarraitzea besterik ez zen, baldin eta kontratuaren titulartasunean aldaketaren bat gertatzen bazen.

Azpinarratzekoa da orria onartu zen unean, ez zegoela argi enpresaren subrogazioaren obligazioa zuenik, irteten zen enpresa Enplegurako Zentro Berezi bezala sailkatuta zegoen kasuetan, eta sartzan zen enpresak ez bazuen halako sailkapenik; inguruabar hori geroago argitu zen subrogazioaren alde, 2013ko apirilaren 17ko Auzitegi Gorenak eman zuen epai (Lan Arloko Sala) baten bidez.

Fundazioak subrogazioaren obligazioa orrietan ezartzeko arrazoiak azaldu ondoren, adierazi behar da gizarte gaietako jurisprudentzian finkatutako irizpide batek haxe dioela: subrogazioak bere jatorria izan dezake, ez soilik arau konbentzional batean, baizik eta baldintza-orrien eduki batetik ere erator daitekeenean. (besteak beste, Auzitegi Goreneko Lan Arloko 2013ko ekainaren 4ko, 2010eko irailaren 20ko eta 2015eko irailaren 14ko epaiak).

Nolanahi ere, onartu beharra dago orrietan subrogazioa ezartzea, administrazioaren ikuspegitik (Kontratazio Alorreko Errekurtsoetarako Administrazio Auzitegi Nagusia, Erkidegotetako Kontratuen Administrazio Auzitegiak eta administrazioarekiko auzi-jurisdikzioa), ez datorrela guztiz bat jurisdikzio sozialaren irizpideekin; izan ere, aukera ukatzen baitie plantillaren subrogazioa Langilearen Estatutuaren 44. artikulua aplikatzetik edo hitzarmen kolektibotik eratorritako ondorio ez diren kasuei.

Laburbilduz, garbi dago irizpide desberdintasun hori oso urrun dagoela segurtasun juridikoa ulertu behar dugun horretatik, areago Sektore Publikoko Kontratuen Legeko testu bateginaren 120. artikulua literaltasunari bagagozkio, hau da, “Adjudikaziodunari lan-harreman jakin batzuetan enplegatzaile gisa subrogatzeko betebeharra ezartzen dieten kontratuetan...”; artikulua horretan badirudi legeak baimendu egiten duela orrietan subrogazioa ezartzea, zeren eta, horrelakorik nahi izango ez balu, egokiena izango zatekeen lege-arau batetik, hitzarmen kolektibo batetik edo eraginkortasun orokorreko negoziazio kolektiboko akordio batetik eratorritako kasuetara soilik mugatu izana.

Gauzak horrela, eta lege-testuinguru horrekin, Fundazioak erabaki zuen, kasu zehatz eta berezi honetan, sartu zen enpresaren orrietan kontratuari atxikitutako pertsonalaren subrogazioa ezartzea, kontuan hartuta lan-merkatuan sartzeko zailtasuna eta desgaitasuna duten langileak direla.

b) **EIBARKO SAN ANDRES FUNDAZIOAK AUZO LAGUN KOOP S.** enpresari adjudikatutako -SUKALDE ZERBITZUA- 13. zk.ko espedienteari dagokionez, Fundazioaren Gobernu Batzarraren 2012ko azaroaren 21eko erabakiz, orriak zera jasotzen du: “Kontratu honen adjudikatzailea subrogatu egingo da, aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan



ezarritako modu eta baldintzetan, gaur egun zerbitzua ematen duen enpresaren plantillaren lan-eskubide eta obligazioetan”.

Idazketa horretan subrogazioaren obligazioak ez du bere jatorria orrietan, baizik eta aipatzen den aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboan.

Izan ere, orriari erantsitako pertsonalaren zerrendan haxe esaten da: “2012ko ekainaren 15ean zerrendatzen den pertsonalak SAN ANDRES FUNDAZIOAK AUZO LAGUN KOOP S enpresari adjudikatutako SUKALDE ZERBITZUA EMATEA kontratuan adierazitako kategorian sailkatutako eginkizunak egiten ditu, eta betetzen ditu SAN ANDRES FUNDAZIOAK, indarreko kontratua 2012ko abenduaren 31an iraungitzean, lizitaziora ateratzeko asmoa duen kontratua esleitzen zaion enpresak subrogatuak izateko indarraldiko hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzak.

913.593 eurotan adjudikatutako bi kontraturen (11. eta 13. espedienteak) txostenek ez dituzte justifikatzen eskaintza bakoitzean esleitutako puntuak. Alderdi hori garrantzitsua zen lehen kontratuan, gutxienero puntuazio bat izatea exijitzen zelako eta bi lizitatzailerik ez zuten lortu

EIBARKO UDALEKO KIROL PATRONATUAK ASMI SERVICIOS DEPORTIVOS SM enpresari 2013ko azaroaren 26an adjudikatutako –SOROSPEN ZERBITZUA- 11. espedienteari dagokionez, administrazio-baldintza berezien orriak honako hau jasotzen du, balio-judizio bidezko adjudikazio-irizpide ebaluagarri gisa:

Eibarko Udaleko Kirol Patronatuan garatu beharreko programaren proiektua

Puntuazioa: 40 puntu (adjudikazio-prozesutik kanpo geratzen ziren 20 puntu gutxienez jasotzen ez zituzten proposamenak).

Irizpidea baloratzeko aurkeztu behar zen dokumentazioa: Eibarko Udalaren Kirol Patronatuan garatu beharreko programaren proiektua jasoko duen dokumentuak, gutxienez, alderdi hauek jasoko ditu:

Sorospen-zerbitzuaren helburuak eta eginkizunak

Zerbitzua eman behar duen pertsonalaren antolamendua (egutegiak, ordezkioak...)

Igerilekuak erabiltzeko antolaketa, instalazioan dauden erabiltzaile kopurua kontuan hartuta eta haietan egin daitezkeen formakuntza-jarduerak kontuan hartuta

Sorosleek kontu handiz zainduko dituzten nahitaezko arauen proposamena

Esku-hartze protokoloak, istripuak gertatuz gero

Segurtasun plana.

Ustekabeei erantzuteko denbora.

Gauzak horrela, Patronatuko Bitarteko Zuzendariaren txostenean, lizitatzailerik aurkeztutako dokumentazioan jasotzen diren alderdien inguruko balorazioetan, azkenean balorazio global orokor bat ematen zaio aurkeztutako proposamen bakoitzari, eta balorazio horretan proposamen bi kontratuaren esleipen-prozeduratik kanpo geratzen dira.



Azpimarratzekoa da kanpoan geratutako enpresek ez diotela inolako errekurtsorik jarri kanporatze-erabaki horri

Uste dugu puntuazioen justifikazioa egon badagoela; edonola ere, egia da adjudikazio-irizpideak eta haien haztapena zehatzagoak izan zitezkeela -horrek, dudarik gabe, argitasun eta zehaztasun handiago emango ziokeen balorazioaren justifikazioari-, eta hala egin da fiskalizazioaren xede den kontratu hau ordeztzen duen kontratuaren lizitazio berriarekin, non esleipenaren irizpide ebaluagarriak balio-judizioen bidez banakatu diren eta haien haztapena zehaztu egin den.

b) **EIBARKO SAN ANDRES FUNDAZIOAK AUZO LAGUN KOOP S** enpresari 2012ko azaroaren 21eko Gobernu Batzaren erabakiz adjudikatutako -SUKALDE ZERBITZUA- 13. zk.ko espedienteari dagokionez, administrazio-baldintza berezien orriak honako hau jasotzen du, balio-judizio bidezko adjudikazio-irizpide ebaluagarri gisa:

Zerbitzuaren azterketa-lan zehatza:

Puntuazioa: 45 puntu

Irizpidea baloratzeko aurkeztu beharreko dokumentazioa: proposatzen den zerbitzuaren azterketa-lan zehatza, Baldintza Teknikoen Orriaren 16. klausulan adierazten diren puntuak garatuko dituena.

Hemen, aurreko espedientean bezala, Fundazioko Administrazio Kudeatzailearen txostenenean, lizitatzailerak aurkeztu beharreko dokumentazioan jasotzen diren puntuak baloratzen dira, eta azkenean balorazio global orokor bat ematen zaio aurkeztutako proposamen bakoitzari.

Azpimarratzekoa da prozeduran parte hartu zuten enpresek ez dituztela errekurritu beren proposamenen balorazioak

Uste dugu, aurreko espedientean bezala, puntuazioen justifikazioa egon badagoela; edonola ere, egia da adjudikazio-irizpideak eta haien haztapena zehatzagoak izan zitezkeela -horrek, dudarik gabe, argitasun eta zehaztasun handiago emango ziokeen balorazioaren justifikazioari-, eta hala egin da fiskalizazioaren xede den kontratu hau ordeztzen duen kontratuaren lizitazio berriarekin, non esleipenaren irizpide ebaluagarriak balio-judizioen bidez banakatu diren eta haien haztapena zehaztu egin den.

Hasierako lanbide-trebakuntzarako ikastaroen kontratuan, ekainean adjudikatu zen zerbitzua 225.000 eurotan, EAEk uztailen eskuordetza formalizatu eta Udalbatzak irailean onartu baino lehen. Gainera, 5 urterako aldi baterako eskuordetutako eskumena izateagatik, erlazionatutako gastu-kredituen eta diru-sarreraren urte anitzeko tratamendu bat komeniko litzateke

HASIERAKO LANBIDE-TREBAKUNTZARAKO PROGRAMA EMATEKO ETA PROGRAMATZEKO kontratuari dagokionez, zeina EIBARKO UDALAK BIDE EGIN SM enpresari Alkatetzaren 2015eko ekainaren 16ko ebazpenez adjudikatu baitzion, arazoa zera



da: nahiz eta EAEren eskuordetza egin behar zelako ahozko berrespena izan, kontratu-adjudikazio baten prozedura bat zuzen izapidetzeak eskatzen dituen formaltasunek ezin zuten ahalbidetu kontratua prest izatea irailean ikastaroak hasteko, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren ebazpenari itxaron behar izan bagenio, ikastaroak emateko ardura izango zuen enpresa hautatzeko kontratazioaren espedientea hasteko.

Halaber, ez dirudi soluzioa denik adjudikazioa Eusko Jaurlaritzaren eskuordetzaren eta Udalbatzak eskuordetza onartzearen baldintza etengarriaren pean jartzea.

Hizpidera dakargu hona Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Alorreko Organo Administratiboaren 2016ko irailaren 20ko ebazpena, zeina klausulen orrietan kontratu baten adjudikazioa legez aurreikusita ez dauden baldintza etengarrien pean jartzearen kontra azaldu baitzen, ulertzen zuelarik ez dela aplikatzekoa Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko testu bateginaren 25.1 artikulua dakarren hitzarmenen askatasunaren printzipioa, baldintza etengarria ez dagokionean kontratuaren edukari (hau da, ez da kontratuen obligazioei buruzko baldintza etengarri bat, betekizunok ez baitira sortu), baizik eta baldintza etengarri hori adjudikazio-prozedurari buruzkoa da, non kontratazio-organoak jarduteko duen aukera mugatzen baita Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko testu bateginak berak adierazten dituen alderdietara, eta kontratu honetan aukera hori ez da existitzen.

Horiek horrela, Udalak zeukan aukera bakarra ikastaroak irailean hasteko kontratua garai horretarako formalizatua izatea zen.

Argi dago, baldin eta azkenean, EAEk eskumenaren eskuordetza hartu izan ez balu, Udalak kontratua ezeztatutzat jo beharko zukeela, Sektore Publikoko Kontratuaren Legeko testu bateginaren 225. Artikuluan ezarritako ondorioekin (burutu ez den prestazioaren zenbatekoaren % 3ko kalte-ordaina).

Aukera horren aurrean, Udalak interes publikoko ikuspegitik zuzenena iritzi ziona hautatu zuen, batez ere kontuan hartuta zer kalte egingo zitzairen formakuntza-ikastaroen xede ziren gazteei, lan-irteera bat ematea baitzen asmoa (Bigarren Hezkuntzako Graduatua lortzeko zailtasun handiak zituzten gazteak).

Errebalgo erabilera anitzeko eraikina egiteko obraren kontratuaren izapidetzean, 5 milioi euroan adjudikatua, bi hilabeteko adjudikazio epea gehienekoa gairiditzeagatik, zeina bi hilabetekoa baitzen proposamenak irekitzeko unetik zenbatzen hasita (Sektore Publikoaren Legeko testu bateginaren 161.2 artikulua)

EIBARKO UDALAK DRAGADOS SA enpresari 2015eko abenduaren 1ean adjudikatutako **ERREBAL ERABILERA ANITZEKO ERAIKINA** obra egiteko kontratuaren adjudikazioaren atzerapena dela-eta, kontratuaren lizitazio-iragarrian adierazten denez (2015eko ekainaren 9ko EBAOn eta 2015eko ekainaren 16an BOEn argitaratua), eskaintzak 2015eko irailaren 9rako irekitzea zegoen aurreikusita, eta 2015eko azaroaren 9an amaitu zen adjudikaziorako bi hilabeteko epea.



Arazoa da 2. zk.ko gutunazala (Balio-judizioaren bidez ebaluatu daitezkeen adjudikazio-irizpideak) ireki zen egunaren (2015eko uztailaren 20a) eta proposamen ekonomikoaren gutunazala irekitzea aurreikusten zen egunaren (irailak 9) artean abuztua dagoela, eta proposamen teknikoak baloratzeko txostena egin behar zuten teknikari arduradunak oporretan zeuden.

Horri gehitzen badiogu kontratua adjudikatzeko prozeduran parte-hartze handia egon zela (13 enpresa) eta aurkeztuta dokumentazio osoa aztertzea konplexua zela, ulertzekoa da eskaintzak irekitzeko hasieran aurreikusi zen datarako (2015eko irailaren 9a) ez egotea prest balio-judizioen bidez ebaluatu daitezkeen adjudikazio-irizpideak baloratzeko txosten teknikoak.

Hala, proposamena irekitzea, lehenik, irailaren 28ra atzeratu zen eta, gero, azaroaren 17ra; eta ordurako eginda zeuden exijitutako eskaintzen balorazio-txostenak.

Garbitegi-zerbitzuaren lizitazioan, 551.397 euroan adjudikatua, gutun-azal bakarra aurkeztu zen. Exijitzen da adjudikaziodunak behar den makineria jartzea eta bere eginkizunak Egoitzako lokaletan egitea, horiek lehia mugatu dezaketen baldintzak izanik.

GARBITEGI ZERBITZUARI dagokionez, EIBARKO SAN ANDRES FUNDAZIOAK GURESERBI SM enpresari 2012ko martxoaren 31an adjudikatu zion zerbitzua; hala da; baldintza-orrietan, exijitzen da adjudikaziodunak behar den makineria jartzea eta bere zereginak Egoitzan bertan egitea.

Azalpen erraza du horrek. Kontratuaren xedea da San Andres Fundazioko egoiliarren arropa (norbere arropa eta arropa zuria) garbitzeko eta lisatzeko zerbitzua ematea; beraz, ez zen egokitzat jo egoiliarren arropa zaharen egoitzaren instalazioetatik irten zedin. Inolaz ere, agiriaren asmoa ez zen lehia mugatzea izan.

III.4 TRANSFERENTZIAK ETA DIRU-LAGUNTZAK

Gainera, Mankomunitateari egiten zaizkion ekarpenak aurrekontuaren zenbatespenekin kalkulatzeko dira, egikaritzaren egiazko datuekin dagokion likidazioa eskatu gabe.

2017ko ekitaldian, udalak, nahiz eta berre aurrekontuan 25.000 euroko partida bat izan, laga egin zion Mankomunitatearentzako ekarpenak egiteari hiruhileko likidazioen kontzeptuan, zeinak zerbitzuaren kostu zenbatetsia haren benetako datu errealekin erkatetik eratorriak diren. Berriki, Mankomunitatearen datu errealen azterketa sakon bat egin da, eta aztertutako informazio ekonomikoa kontuan hartuta, atera dugun ondorioa -eta hala adostu dugu Mankomunitaterekin- izan da 2017 urterako ez dela beharrezkoa izango inolako diru-ekarpenik egitea defizit-estaldura kontzeptuan; izan ere, erkatu diren datu errealen arabera, ez da halakorik egon.



Elkarte batekin sinatutako 4 hitzarmenetan, beste horrenbeste diru-laguntza izendun (129.449 euro) arautzekoak, ez dira zehazten diru-laguntzen xede diren jarduketa zehatzak, ezta haien kostua zenbatekoa izango den ere; hortaz, ez dira zehazten zer jarduera egingo diren, eta diru-laguntzaren zenbatekoa ere ez da justifikatzen

Kontuen Auzitegiak ETA KITTO EUSKARA ELKARTEAren aldeko 4 diru-laguntza izenduni egiten dio erreferentzia, honako xede eta zenbatekoekin:

- 2016an, Berbetan proiektua, 50.908 euroko zenbatekoarekin
- ETA KITTO aldizkariaren edizioa (paperean eta digitalean), 60.041 euroko zenbatekoarekin
- Txikito aldizkariaren edizioa, 13.500 euroko zenbatekoarekin
- Onuradunak garatu beharreko tailerrak eta hitzaldiak, 5.000 euroko zenbatekoarekin

Hitzarmenetan azaltzen den xedea 2016ko Aurrekontuko Diru-laguntza Izendunen Eranskinean jasotakoaren berbera da; nolahi ere, onartu behar da, Kontuen Auzitegiaren txostenean jasotzen den bezala, diru-laguntzen onuradun den elkartearekin izenpetzen den Hitzarmenean komeniko litzateke haren xedea gehiago zehaztea; hala komeniko litzateke jasotzea, diru-laguntza lerro bakoitzean, egin beharreko jarduera zehatzak eta aurrekontu partzialak. Horren guztiaren berri emango zaio espedientearen instruktoeari, hurrengo deialdietan gehiago zehaztu daitezzen hitzarmenean, diru-laguntza izendun bakoitzak jasotzen dituen jarduerak. Horren guztiaren berri emango zaio espedientearen instruktoeari, hurrengo deialdietan gehiago zehaztu daitezzen hitzarmenean, diru-laguntza izendun bakoitzak jasotzen dituen jarduerak.

Hala ere, adierazi behar da elkarteak diru-laguntzari emandako xedea azaltzeko justifikazio-kontuan bai jasotzen direla modu berariazko eta zehatzuan:

- a) Diru-laguntzen lerro bakoitzean egindako jarduerak
- b) Jasotako funtsen aplikazioaren justifikazioa, jasotako funtsei zer erabilera eman zaien egiaztatzeko fakturak eta ziurtagiriak aurkeztuta.

III.5 BERANKORTASUNA ETA BESTELAKO ALDERDIAK

Ordainketa epeen gaineko hiruhileko txostenek erakusten dute Udalak 2016n egindako ordainketen %0,89k finkatutako epea gainditu zuela (30 egun onartu zenetik). Ehuneko hau % 72,51 eta 17,33 bitartekoa da, hurrenez hurren, San Andres Egoitzan eta Musika Eskolan. Kirolaren Patronatua ordainketen batez besteko epea kalkulatzera mugatzen da, 2016an 22,5 egunekoa izan zena.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Udalari dagokionez, adierazi behar da 2016an finkatutako epea gainditu zuten ordainketen ehunekoa ez dela oso esanguratsua, egindako ordainketa osoaren % 0,89koa baita. Edonola ere, ekonomia sailaren teknikariok jarraituko dugu ahaleginak egiten portzentaje hori ahalik eta gehien gutxitzeko, eta 0-koa izan dadin saiaturako gara. Halaber, azpimarratu behar da 2016an Ordaintzeko Batez Besteko Epea, hiruhileko, hauxe izan zela: -4,88 (1. hiruhilekoa), -6,51 (2. hiruhilekoa), -5,49 (3. hiruhilekoa) eta -10,46 (4. hiruhilekoa).

Bestalde, Musika Eskolak soilik 2016ko lehen hiruhilekoan ez zuen legezko epea bete. Gainontzeko hiru hilekoetan, finkatutako epea gainditu zuten ordainketen ehunekoa 0-ra murriztu zen. 2016an, Ordaintzeko Batez Besteko Epea, hiruhileko, hauxe izan zen: 9,21 (1. hiruhilekoa), -20,52 (2. hiruhilekoa), -19,81 (3. hiruhilekoa) eta -23,65 (4. hiruhilekoa).

San Andres Egoitzari dagokionez, txostenean adierazitako ordaintzeko epeak ohikoak izan dira urte luzeetan, eta inoiz ez dugu kexarik jaso hornitzaile eta hartzekodunengandik. Hala ere, hori ez pisuzko arrazoi horrela jarraitzeko eta horregatik 2017tik ordainketak egiteko modu hori aldatzen hasi gara, ordainketen epea ahalik eta gehien murrizteko xedez. Bestalde, adierazi behar da Egoitzan, 2016an, Ordaintzeko Batez Besteko Epea, hiruhileko, hauxe izan zela: 24,67 (1. hiruhilekoa), 25,65 (2. hiruhilekoa), 25,16 (3. hiruhilekoa) eta 26,55 (4. hiruhilekoa).

Azkenik, esan behar da udaleko teknikariek eta haren mendeko diren erakunde autonomoek jarraituko dugula gure esku dagoen guztia egiten ahalik eta gehien murrizteko finkatutako epea gainditzeko duten ordainketen portzentajea; eta ahal bada, saiaturako gara ordainketen % 100 epe horren barruan egin daitezkeen.

Udalak, 2016ko ekainean, Txonta eremuan kokatutako 18 enpresetako bat birkokatzeko hitzarmena izenpetu zuen; ez zituen, baina, alde aurretik hirigintzako araudian aurreikusitako antolamendu eta egikaritza planak eta baliabideak garatu eta izapidetu. Egokiagoa zatekeen sektorearen gaineko plangintza osatzea eraginpeko enpresekin erabakiak hartzen hasterako eta erabakien egikaritza hirigintza proiektuaren egiazko egikaritzara menderatzea.

Bi gai hauek aipatu behar dira:

- Bai, eremuaren planifikazioa osatu aurretik akordioak gauzatu zitezkeen eraginpeko enpresekin, Txonta 125 JIren hirigintza-fitxak ezarri baitzuen jarduketak bere gain hartu behar zuela kostua honako kasu hauetan: etxebizitzaren leku aldatzeak jarduerak handik beste leku batera eramatean HAPOren aldaketari behin betiko onespina eman zitzaion egunean okupatuta egon eta martxan bazeuden, eta birpartzelatzearen unean okupatuta edo/eta funtzionamenduan bazeuden, edo, hori baino lehen, administrazio jardulearekin lekuz aldatzeko edo beste norabait joateko berariazko akordio batera heltzen baziren.



- Eremuaren plangintza osatu arte itxoitea ez zatekeen egokiagoa, zuhurragoa baizik, izan ere, udal administrazioari arrisku gutxiago ekar baziezaiokeen ere, aldi berean, hitzarmenaren azalpen-zatian adierazitako helburuetako bat lortzea ekidin zezakeen:

Gaur egun, Talleres AIBE SAK Txonta eremutik lehenbailehen irten beharra du: han ez dauka leku nahikorik, eta geroratu ezinezko beharra du enpresa zabaltzeko, premiazkoa baitu bere ekoizpen-ahalmena merkatura egokitzea. Horregatik, Talleres Aibe SAK ezin du itxaron Txontako birpartzelazio-proiektua behin betiko onartu arte.

Talleres Aibek bere industria-jarduera Eibarko udalerrian mantentzen jarrai dezan eta Txonta 125 Alren hirigintza garapenerako, interesgarria da haren instalazioak Matxariabarreneko pabiloietara eta garajeetara eramatea, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren jabetzakoak.

ERASKINEI EGITEN ZAIZKIEN ARRAZOIBIDEAK:

A.13 LEGE GERTAKARIAK

Bestalde, 2015ean, Udalak Txonta eremurako HAPOren aldaketa bat onartu zuen, 18 enpresen leku-aldaketa aurreikusten zuen aldaketa. 2016an, Udalak hitzarmen bat sinatu zuen enpresa haietako bat birkokatzeke, eta hark okupatzen zuen eraikina eta leku-aldaketagatiko kalte-ordainak 1,5 milioi euroan balioetsi zituen, dagokion hirigintza-birpartzelazioa onartzean sortuko diren eraikuntza-eskubideekin konpentsatuko den zenbatekoa. EAEREkin egindako aurretiko beste hitzarmen baten bidez, Euskal Autonomia Erkidegoak enpresa horri esandako zenbateko horretan baloratutako beste pabilioi bat alokatu zion, eta, etorkizunean, lehen aipatu diren eraikuntza-eskubide horiekin trukatzeko aurreikusten da. Enpresarekin eta EAEREkin egindako hitzarmenek hauxe jasotzen zuten: birpartzelazioa onartzen ez bazen, Udalak EAERI 1,5 milioi euro ordainduko zizkiola gehienez ere 8 urteko epean. Hasieran aipatu den HAPOren aldaketa hori EAERko Auzitegi Nagusiak deuseztatu zuen 2017ko apirilean emandako epai bidez, aldaketaren bideragarritasun ekonomikoa zalantzan ipinita. Horregatik, Udalak eremu hartan etorkizunean egon daitezkeen hirigintza-garapenei hitzarmenaren kostua egozteko lortzen ez badu, EAERI 1,5 milioi euro ordaindu beharko dizkio enpresa birkokatzekeko pabiloiengatik.

Egin den gertaera-zerrenda hori zuzena da, baina kontuan hartu behar da baita beste hau ere: hitzarmena egikaritzeagatik, Udala Talleres AIBE SAK Txontan dituen instalazio zaharren jabetza eta esleituak dauzkan hirigintza-eskubideak eskuratuko dituela, beraz, kostua hirigintza-eskubide horiek zehazten direnean baino ez da jakin izango.





Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

ABREVIATURAS

AES	Ayudas de Emergencia Social.
BOG	Boletín Oficial de Gipuzkoa.
CAPV	Comunidad Autónoma del País Vasco.
DFG	Diputación Foral de Gipuzkoa.
LRBRL	Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local.
PGOU	Plan General de Ordenación Urbana.
RPT	Relación de Puestos de Trabajo.
TSJPV	Tribunal Superior de Justicia del País Vasco.
TVCP	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, y en el Plan de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Eibar para el ejercicio 2016.

La anterior fiscalización de la Cuenta General del Ayuntamiento de Eibar realizada por el TVCP fue referida al ejercicio 2006.

Esta fiscalización comprende los siguientes aspectos:

- Legalidad: revisión del cumplimiento de la normativa aplicable en las áreas de presupuesto, ingresos de derecho público, endeudamiento y operaciones financieras, personal, contratación de obras, servicios y suministros, y concesión de subvenciones. Dicha revisión comprende el ejercicio de fiscalización, sin perjuicio de las comprobaciones relativas a otros ejercicios que se estimen necesarias, por tener incidencia en el ejercicio fiscalizado.
- Contabilidad: conformidad de la Cuenta General con los principios contables que le son aplicables. La Cuenta General contiene los balances, la cuentas del resultado económico-patrimonial, memorias y las liquidaciones de los presupuestos del Ayuntamiento, de sus Organismos Autónomos y de la Sociedad municipal.
- El alcance del trabajo no ha incluido un análisis específico sobre la eficacia y eficiencia del gasto, ni sobre los procedimientos de gestión. No obstante, los aspectos parciales que han surgido en la fiscalización se detallan en el epígrafe III de este Informe.
- Análisis financiero de la situación económica del Ayuntamiento.

El municipio de Eibar, con 27.380 habitantes a 1 de enero de 2016, integra en su Ayuntamiento, además de la administración municipal, a los siguientes Organismos Autónomos y Sociedad pública:

- Patronato Municipal de Deportes (Patronato de Deportes), que gestiona las instalaciones deportivas municipales de Ipurua, Unbe, Orbea y Astelena.
- Fundación Pública San Andrés (Residencia San Andrés), que gestiona la residencia municipal para personas mayores.
- Patronato de la Escuela Pública de Música Juan Bautista Gisasola (Escuela de Música).
- Inmobiliaria Municipal Eibarresa, SA (100%), IMESA, que ha gestionado diversas promociones inmobiliarias, acordando en 2015 su disolución (Ver anexo A.11).

Asimismo, forma parte de la Mancomunidad Comarcal de Debarrena (limpieza viaria y recogida de basuras) y del Consorcio de Aguas de Gipuzkoa (gestión del ciclo integral del agua).

Por último, participa en la Sociedad para el Desarrollo Económico del Bajo Deba, SA DEBEGESA (12,5%) y en la Asociación de Desarrollo Rural Debemen.



II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

En opinión de este Tribunal las entidades que integran la Cuenta General del Ayuntamiento de Eibar han cumplido razonablemente en el ejercicio 2016 la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

